


BERRIGARA

es. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1997, otsailak 21



Mugarik gabeko pailazoak Oihulari Klown

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.

VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate

*Zure ongizatea
babesteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.


EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

Automobil aseguruak

Mapfre abantailak



Zure kotxeko
aseguruaren
abantaileri buruzko
zehaztapan guztiak
emango dizkizugu.
**Zatoz eta
galdetu!!**

**MAPFRE
MUTUALIDAD**

Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80

BERRIGARA

BERRITALDE JAUREGIA
400570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkarteak.

Zuzendaria:
Eduardo Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Eduardo Elkoroberezibar

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Publizitatea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Argitaratzailea:
Eduardo Mendibil

Z E B E R R I D A ?


GERARDO MONDRAGON Jubilatuaren Presidenteordea

- Martitzenean, hilak 25, Jubilatuetan batzorra izango da 5etan.

- Bai, urrian San Joxepe elkarteak eratzeko akordioa hartu genuen eta dagoeneko 752 bazkide gara elkartearen, gehienak 66 urtetik 70era (216 lagun) eta 71etik 75 urtera (150 lagun) bitartekoak. Jendeak interes handia azaldu du orain arte eta martitzeneko asanbladan elkartearen funtzionamendurako estatutuak onartu beharko dira.

- Zeintzuk izango dira aztertuko diren beste puntuak?

- Lehenbizi estatutuak oso modu grafiko eta pedagogikoan azalduko dira jendea aspertu ez dadin eta ondoren eztabaidatu eta botaziora eramango dira. Jarraian, kuotaren



(1.000 pezetakoa) onarpena ere aztertuko da eta, azkenik, zuzendaritza batzordearen ratifikazioa egingo da. Diru kontuak eta aurtengorako aurrikusita dauden ekitaldiak ere azalduko dira. Bazkide guztiak martitzenean Jubilatuetara etortzeko gonbidatu nahi ditugu, asanbleak, hemendik aurrera, beharrezko garrantzia izan dezan.

“Martitzeneko batzarrean San Joxepe elkarteak estatutuak onartuko ditugu”

I T U R R I O N E T I K

Reala eta Eibar futbol taldeak Andres Alzelairi egongo zaion omenaldian

BKEk Andres Alzelai jokalaria eta entrenatzaile ohiari omenaldia eskainiko dio datorren maiatzaren 1ean.

Ziurrenik Real eta Eibar futbol taldeen arteko futbol partidua izango da Agorrosinen. Eibarren presentzia konfirmaturik dago eta aukera handiak daude Realaren partaidetza ere lortzeko. Andres Alzelai beti egon da Bergarako futbolari lotuta.

Jokalaria bezala Bergara, Valladolid eta Santanderreko Racing taldeetan aritu zen eta garai batean Bergarako entrenatzailea izan genuen. Gaur egun 71 urte ditu. Omenaldian jasotzen den dirua BKErentzat izango da.

E S A N
D U T E

“Azken urteetan, bestalde, senarra lantegira jeitsi eta emakumeak eraman behar du baserriko pisua. Baserriari eustea garrantzitsua da, eta emakumeak paper handia jokatzen du. Baserriko emakumea animatu beharra dago, baina horretarako gaur egun zein alternatiba dauden ezagutu behar dute. Baserriko eta kaleko lana bateragarriak izan daitezke, oporrak hartzeko aukera badago... ondo informatuta egotea ezinbestekoa da”

MAITE ARISTEGI

Emakume baserriaren elkarteak kidea ARRASATE PRESS

“Ezkondu ala ez ezkondu? Objektiboa izanik argi dago, legediaren aldetik dagoen hutsunea konpontzen ez den bitartean, ezkondu baten bikote batek berezko bikote batek baino abantaila gehiago dituela. Parekotasun bat eman dadin, lege bat arautu beharra dago”

SABIN ZABALETA
Abokatua
HERRI IRRATIA



Aldizkari honek Bergarako Udalerriaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Legearen laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Legearen laguntza jaso du



FANATICO

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astlehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



MATILDA

Domeka: 11:30 (Matinala).



EL CORREDOR DE LA MUERTE

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ **Tony Scott Ridleyren** anaiak errodututako azken filmean **Robert De Niro** eta **Wesley Snipes** dira protagonista nagusiak. *Gil Renardek (De Niro)* ez du suerte gehiegirik izan bere bizitzan eta guztiz obsesionatuta dago bere beisbol taldearen azken fitxaketarekin. Baina *Rayburn jokalaria (Snipes)* ez zaizkio gauzak ondo aterako eta *Renardek* bere laguntza eskeini nahi izango dio...

▼▼ **Danny DeVito** aktore eta zuzendariak (*La guerra de los Rose*) haurrei zuzendutako filmea egin nahi izan du oraingoan. *Matilda* oso neska azkarra dugu baina bere gurasoek ez dituzte bere gaitasunak kontutan hartzen. Ikastetxe batera bidaltzen dutenean *Matilda* eta bere lagunak zuzendariaren kontra altxatuko dira...

▼▼ **Oliver Stonek** ekoiztu eta **Tim Metcalfek** zuzendutako filmea. *Henry Lesser (Robert Sean Leonard)* Estatu Batuetako kartzelarik ospetsuenetakoan lanean hasiko da eta bertan *Carl Panzram (James Woods)* hiltzailea ezagutuko du. *Panzramek*, heriotza zigorra jaso baino lehen, bere autobiografia idatzi nahi du eta horretarako *Lesserek* bere laguntza eskeiniko dio.

Deiak

▼ **Oihulari Klown** taldearen emanaldia ostegunean, hilak 27, gaueko 10etan Pol-Pol tabernan.

▼ **Ikus-entzutekoa.** Amaia Elozegi eta Esther Mugertzaren "Turkiatik Birmaniara bizikletaz" bideoa Osintxuko ludotekan, gaur ostirala 19:30etan.

▼ **Rikardo Azkargortaren** marago erakusketa Madrileko La Kabala erakustokian (Conde de Aranda, 10) martxoaren 8ra arte.

▼ **Lilaton** emakumeentzat lasterketa herrikoia martxoaren 2an Donostian. Argibideak 929 25 84 51 telefono zenbakian (arratsalde).

▼ **Hilario Azkargortaren** argazki erakusketa Nahikarin.

Ogia

▼ **Domeka 23:** Ogizun.

FARMAZIAK


- ▼ **Eguakitza 21:** Puy.
- ▼ **Zapatua 22:** Guallar.
- ▼ **Domeka 23:** Guallar.
- ▼ **Astlehena 24:** Estella.
- ▼ **Martitzena 25:** Mozos.
- ▼ **Eguaztena 26:** Camacho.
- ▼ **Eguena 27:** Puy.

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA



LIZAR
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53



Miguel Gimbert Hernan

ARROZTEGIA / EBANISTERIA
Zokalo, ate, tarima eta armairuen kolokazioa eta era guztietako arotzeria-lanak

Orain ARETXABALETAN,
Basabe Polig. A-2-5 TI/F 79 15 71

Taun-Taunen *Ububabel*

Zapatuan gaueko 10:30etan Novedades aretoan

Joan zen urriaren 20ko estreinuaren ondoren, bihar larunbata, "Ububabel" Taun-Taunen azken lana bigarren aldiz ikusleko aukera izango da Bergaran, 22:30etan Novedadesen. Itsaso Azkarate protagonistetako batek azaldu digunez, ikusleagoak zein kritikak harrera ezinhobea eskeini diote lanari.

- Dagoeneko 15 emanaldi eman dituzue. Zein balorazio egingo zenuke?

- Beti ere emanaldien bidez konfiantza gehiago hartzen duzu eta gustora gaude lanaren azken emaitzarekin. Bestalde, orain arte ikusleagoaren eta kritikaren aldetik ere harrera oso ona jaso dugu eta hori ere lagungarria da aurrera egiteko.

- Uburen pertsonaia-
ren inguruan hainbat lan estreinatu dira. Hori zuen onerako ala kalterako izan da?

- Lan guztiz diferentek direnez, osagarriak dira esango nuke. Gasteizen Uburen inguruko ziklo bat izan zen eta han izan ginen Els Joglars ("Ubu president" lanarekin), Legaleon T ("Cien años de



Taun-Tauneko kideak "Ububabel"en buru-belarri sartuta.

Ubu") eta geu. Talde bakoitzak eszenografia propioa dauka, hiru lanek ez dute zerikusirik. Gurea bisualagoa da, lan plastikoa nagusiki, eta bertan aktore lana, txotxongiloak, objetuen manipulazioa edo itzalak nahasten saiatu gara.

- Nagusiei zuzendutako lana al da zuena?

- Ez dut uste, 12 urtetik aurrerakoek ere errez ulertzen dute. Orain arteko emanaldietan gazte jende asko izan dugu; Agurainen, esate baterako, aretoa gaztetxo beteta zegoen eta guztiak aho zabalik geratu ziren. Uburen pertsonaia serioa bada ere,

lan honek samurtasun handia dauka, gauzarik basatiena ere oso modu sinplean azaltzen da. Pertsonaien freskotasuna eta lanaren plastikotasuna eta sinpletasuna goraipatuko nituzke, oso lan dibertigarria da gainera.

- Eta mezu bat bidali nahi duena...

- Lanean Ubu, errege izan nahi ez duen pertsonaia, aurkezten da. Berak nahiago du morroi izatea

eta zenbat eta kateatuago bizi orduan eta askeago sentitzen da. Intsumisioaren gaia ere hor dago... baina lan honek ez du panfleto bat izan nahi. Mezu hor dago... baina bakoitzak bere ideiak hartuko ditu. Askotan gertatzen da antzerkian edo pinturan jendeak adierazi nahi dena baino gauza gehiago ikusten dituela eta hobe da norberaren burua horretara ez behartzea.

- Bukatzeko, Bergaran jendeak badauka antzerkiera joateko ohi-turirik?

- Badago hortara ohituta dagoen jende bat baina beste jende asko ez dakit zergatik ez da enteratu ere egiten antzerkia dagoenik. Ez dakit irakurtzen ez dakigulako den edo publizitate nahikoa egiten ez delako. Zirkoko jendea bezalaxe hasi beharko gara, kotxea eta megafonoarekin kalez kale... Hori izan daiteke jendea erakartzeko metodorik egokiena.


"Hamabi urtetik gorako edonork errez uler dezake Taun-Taunen lan berri hau"

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



KORTA-ZAR

Txokolategia

**Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea**

**OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

Produktu naturalak

Berrigara aldizkariaren 265. alean, "Adituen esanetan" sailean, elikadurari buruz hitz egiten du Bittor Rodriguez "dietistak". Elkarriketa irakurri ondoren, bi konklusio garbi atera ditugu:

1. Produktu naturalez hitzegiterakoan konzeptu gehiegi nahastu egiten dituela.

2. Pestizida, ongarrri kimiko, aditibo eta hazi transgenikoaren aldekoa dela.

Elikadurari buruz hitz egiten dugunean garbi izan behar dugu edozein produktuk (ogi, barazki, fruta, arrain, haragi eta abar) duen konposaketaz hitz egiten dugula. Hots, hainbeste proteina, bitamina, olio, ur, materia lehor, eta abar duela. "Itxura", "presentzia", beste gauza bat da: zein ontzitan, zein informazio zahaztuz, eta abar, modarekin datorren zerbait. Itxura izugarria izan dezakeen frutak, haragiak edo beste edozein produktuk, askotan ura besterik ez du, edo maila handi batean ura izaten du.

Produktu ekologikoak itxuraz arruntak baino eskasagoak izan daitezke, baina materia lehorra, bitamina edo proteina kopuru haundiagoa dute; nitrito eta nitrato gutxiago; eta pestizida -edota aditibo- hondakinak, eta distira emateko argizariak ez. Bizi garen gizartean, "Natural" hitzak bere zentzuaren gehiena galdua du, natura eta ingurugiroa nahiko zikinduta dugu eta. "Natura" hitzak esan nahi duena naturalki atera den produktua bat dela da. Baina gaur egun erabiltzen diren teknikei esker, bai nekazaritzan, bai abeltzaintzan, bai beste edozein arlotan, ez dute zer ikusirik produktio naturalarekin.

Granja intentsiboetan oilo, behi, txerri eta abar preso, lotuta daude, eta beraien elikadura azkar gizentzeko pentsatuta dago: kontzentratuak, aditiboak, hormonak, olioak, koipea, eta abar. Nekazaritza hidroponikoa, gaur egun puntako teknika dena, lurrarekin inolako harremanik gabe burutzen da. Lana de roca, perlita edo beste

sustrato berezi batzuetan egiteaz gain, ongarrri kimiko, pestizida (eta laser hazi transgenikoekin) egiten dira.

Baina badaude beste nekazari batzuk nekazaritza biologikoa, organikoa, biodinamikoa egiten dutenak. Gutxiago produzitzen dute, baina inork ez du zalantzan jartzen produktu hobeak lortu eta ingurua zaindu egiten dutela. Ekologiko, biologiko, biodinamiko, organiko hitzak babestutako hitzak dira. Ezin ditu edonork erabili. Hitz hauek nekazaritzan erabiltzeko Europako Ekonomi Elkartek Bruselan onartutako 2092/91 araudia bete behar da. EAEn, araudi hau beteko dela ziurtatzeko, Eusko Jaurilaritzako Industria eta Nekazaritza Sailak Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilua osatu du.

Araudia oso zorrotza da: ezin dira sintesi kimikoaz lortutako pestizida, aditibo, ongarririk erabili. Zer esan nahi du honek? Egun erabiltzen direnak ezin direla erabili. Hauek uraz ez dira guztiz desagertzen "sistematiokoak" direlako. Sistematiokoak esan nahi du landarearen "odolean" (izerdian) sartzen dela, landare guztira zabalduz. Askoz eraginkorragoa da, atal guztietan dago pestizida. Honetaz gain hotz-ganbaretan gordezko ere tratatzen dituzte; horrela, tomate, sagar, udare, platano eta abar, usteldu gabe urte osoan dugu azoketan.

Argi utzi nahi duguna zera da: tratamendu guzti hauek hondakinak uzten dituzte produktuetan. Hondakin hauek ez dira uraz desagertzen. Produktuekin batera jaten ditugu eta gizakiontzat toxikoak dira.

**EUSKAL HERRIKO NEKAZARITZA
EKOLOGIKOAREN ELKARTEA.
EKONEKAZARITZA ETA BIOLUR GIPUZKOA**

Herriak ez du barkatuko

Otsailaren 7an, gure familiarterko presoak bisitatzeraz Alcala-Mecora gindoazela, Jose Mari Aranzamendi (Katxue)-ren heriotzaren berri jaso genuen. Lehenengo berrien arabera, bere buruaz beste egin zuen, baina une honetan oraindik ez dago batere garbi bere heriotza nola gertatu zen. Senide preso bat bisitatzeraz goazenean galdetara bat erabiltzen dugu beti buruan: "nola ote dago?". Otsailaren 8an denok ikusi ahal izan genuen gure presoek ez zutela bertsi ofiziala sinesten, eurak dakitelako inork baino hobeto Espainiako Estatu gartzelatan gertatzen denaren berri. Denok dakigu zelako heriotz mehatxuak jasotzen dituzten euskal preso politikoei eta, horren adibide, momentu honetan gose greban dagoen Bergarako preso batek jasotakoa agertu nahi dugu hemen. Horrekin esan nahi dugu gure senide presoak etengabeko arriskuan daudela, eta ezin dugula onartu Katxueri gertatutakoa modukorik berriz gertatzerik.

Heriotza hau ez da Estatu Espainiarreko gartzelatan gertatutako lehena izan. Katxuek eta beste batzuek Euskal Herriaren alde eman dute beren bizia, eta askatasunik gabe egon behar izateaz gain, dispertsioaren tortura jasan behar izaten dute. Zer dela eta? Orain dela aste bateko genioen guztiz suntsitu nahi zituztela. Orain, tamalez, esan dezakegu arrazoi genuela.

Jaun-andreok, beste akats bat izan duzue. Nola ziurta daiteke Katxuek bere buruaz beste egin zuela, agertu zen moduan agertu zela jakinda? Esku eta hanka lotuta eta begiak estailita. Zer dela eta ez zen hasieratik horren berri eman? Euskal preso politikoen senideok azalpen bat exijitzen dugu. Estatu agintedunek eta politikoei dute horen erantzuna. Uste al duzue erantzungo digutela?

BERGARAKO SENIDEAK

Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



Zuhaitz eguna

Zuhaitz eguna ospatuko da zapatu honetan Pol-Pol iturriaren inguruan. Herriko ikastetxeetako 10-11 urte bitarteko haurrek pagoak, urkiak, haritzak e.a. landatuko dituzte eta ondoren ogitartekoak eta edariak banatuko zaizkie. Urtero bezala autobusa irtengo da Beheko Estaziotik goizeko 11etan.

Salaketa

Udal Gobernu Batzordeak azken bi asteetan gertatutako "ekintza bandalikoak (Kutxako kajeroa bi aldiz erre, telefono kabinak puskatu, pintadak egin, e.a.) publikoki salatu" ditu.

Meminen omenez

Iñigo Martinez "Memin" zenaren omenez Irukurutzetara mendi irteera antolatu dute bere lagunak zirenek martxoaren 1erako. Egun guztirako izango da eta irteera goizeko 8etarako iragarri da San Martin plazan. Bokadiloa norberak eraman beharko du, baina salda beroa eta sagardoa ez dira faltako.

Istiluak HBko Mahai Nazionalaren atxiloketari buruzko Plenoan

Herri Batasunaren

Mahai Nazionalaren gartzelaratzea salatu eta kide guztiak aske lagatzeko HBk aurkeztutako mozioa ez zuen onartu Udalbatzak joan zen asteleheneko Pleno istilutsuan. EAJ eta EAko bederatzizinegotzien ezezko botuek atzera bota zuten mozioa. HBko zazpi zinegotziek alde botatu zuten eta PSE-EEkoa ez zen Plenora agertu.

Pleno Aretoan jende ugari bildu zen eta EAJ eta EAren kontrako oihuak entzun ziren. Mozioa botatu eta boto esplikazioaren ondoren, Plenoko bigarren puntura pasatu zen. Une horretan HBko zinegotziek euren aulkiak laga eta pankarta bat zabaldu zuten EAJ eta EAko zinegotzien aurrean. Bertan "Zuena da errua, demokrazia Euskal Herriarentzat" irakurri zitekeen. Era berean, Alternatiba Demokratikoaren ale bana eman zizkien HBko zinegotziek EAJ eta EAkoei. Hauek Plenoarekin jarraitu zuten eta jende artetik bost arraultza jaurti ziren Udal Gobernuko zinegotzien kontra. Hori ikusita, Plenoa bukatu eta aretoa laga egin zuten.

HBk aurkeztutako mozioan, Mahai Nazionalako kideen gartzelaratzea salatu eta aske lagatzeko eskatzeaz gain, Euskal Herriaren eta espainiar estatuaren arteko gatazkaren konponbidea elkarrizketa eta Euskal Herriaren eskubideen onarpenaren bidez etorri beharko dela adierazten zen. Horrez gain, espainiar estatuari



HBko zinegotziek pankarta bat zabaldu zuten Pleno Aretoan.

elkarrizketaren biderei ekin eta errepresioaren bidea baztertzea eskatu eta Plenoan hartzen zen erabakiaren berri espainiar gobernuari eta espainiar estatuaren Epaitegi Gorenari igortzea eskatzen zen.

Zinegotzien kontrako oihuak

Boto esplikazioan, Koldo Pereirak EAJren izenean, Auzitegi Gorenak HBren Mahai Nazionalakideak auziperatzeko hartu duen erabakia "juridikoki eztabaidagarria dela, jarduera judizialek eskatzen duten ardurarik ez duela eta jatorri politikoa duten bultzakadak eraginda dirudiela" esan zuen. Eta HBko Mahai Nazionalaren jarreraren aurrean, "bere obizko joerekin guztiz bateraezina dela, HBk sarritan Justizi Auzitegietara jotzen duela, eta HBk duen agitazio eta propaganda eske-mentu ideala" dela.

Juan Mari Garitanok EAren izenean, berriz, HBren Mahai Nazionalako kideak espetxeratzea ikuspuntu politiko batetik "desegokia dela eta funts juridiko kuestionagarria izateagatik EAk bere ezadostasuna" agertzen zuela adierazi zuen eta ETaren ingurunea "indarkeriaren estrategia uztera eta bakea nahi duen herri honen gehiengoaren borondatea onartzeko deia" zabaldu zuen.

Bai EAJko zein EAko bozeramaleak hizketan ari zirenean "PNV-EA gartzeleroak" eta "Gartzeleroak traidoreak" oihukatu zuten Pleno Aretoan bildutako HBren aldekoek.

Agurne Barrusok, HBren izenean, azkenik, ETaren alternatiba "mahai gainean dagoen pake proposamen bakarra" dela eta horregatik atxilotu dituztela Mahai Nazionalakideak salatu zuen, eta Jose Luis Elkororenganako "interesik ez azaltzea" leporatu zuten EAJ eta EAko zinegotziei.

HILDAKOAK

- Patricia Gonzalez Larrañaga Otsailak 12, 74 urte.
- Rosario Luarizaristi Mujika Otsailak 13, 83 urte.
- Ignacia Elkororibe Jauregi Otsailak 13, 85 urte.
- Jesusa Oruesagasti Gabilondo Otsailak 14, 84 urte.
- Cecilio Andueza Araña Otsailak 18, 82 urte.

JAIOTAKOAK

- Miren Ignacio Aguado Otsailak 9.
- Veronica Del Mazo Lopez Otsailak 15.

Mendi Irteerak

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Gorla Alpinok nagusientzako mendi irteera antolatu dute Mañaria-Urkiolara, domeka honetarako. Irteera goizeko 7:30etan frontoi aurrean egingo da. Bestalde, 14 urtetik gorako gazteentzat Ganeko gortara irteera antolatu da martxoaren 2rako. Izen-ematea Pol-Polen.

Ikaslegaiantzat prestakuntza

Gipuzkoako AEKk glotodidaktika ikastaroa antolatu du ikasturte honetako hirugarren hiru hilabeterako. Ikastaroa 100 ordu teoriko-praktikoz osatuko da. Interesa dutenek honako bi telefonora hauekara deitu dezakete: 76 05 18 eta 47 19 35.

Jardunaldi pedagogikoak

San Martin ikastetxe publikoak antolatuta, hiru hitzaldi izango dira Kultur Etxean datorren astetik aurrera. Hasteko, eguenean, Begoña Berroeta "Autoestima" gaiari buruz jardungo da 19:30etatik aurrera.

Sagardotegi eguna Artatsen

Artatse Elkarteak sagordegi eguna antolatuko martxoaren 1ean Artatsen. Sagardotegi montatuko da kupela eta guzti. 20:30etan zabalduko da eta herri afarirako menu berezia egongo da: bakailau tortila, txuleta eta intxaurreak, eta sagardoa nahi beste. Guztia 2.000 pezetaren truke (1.700 ikasle eta langabetuentzat). Triklitlariak izango dira. Txartelak Arranon, Pol-Polen eta Kortazarren eskura daitezke.



lazko ekainean hasi ziren Aranzadi Ikastolaren 25. urteurreneko ospakizunak.

Hamabostaldi kulturala Aranzadiren 25. urteurrenerako

Apirilean izango da eta liburu bat argitaratuko da

Aranzadi ikastolak hamabostaldi kulturala antolatuko du apirilaren 14tik 27ra bitartean ikastola sortu zeneko 25. urteurrena ospatzeko. Hamabostaldirako prestatu diren ekitaldien aurrerapena egin zuten antolaketa batzordekoek joan zen asteartean. Helburua, "ikastola Bergara osoan proiektatzea da eta haur, gazte zein helduak ikastolaren urteurreneko ospakizunetako parte izatea da".

Hamabostaldi kulturala apirilaren 14an, astelehena, hasiko da Korrika antzeko batekin eta herri bazkari batek emango dio amaiera. Horiez gain, haurrentzako jokoak, pailazoak eta zankodunak; aintzinako eta karreretako kotxeen erakusketa; gazteentzako rock jaialdia, hitzaldiak

edota Benito Lertxundiren emanaldia izango dira. Nolanahi ere, egitaraua oraindik ez da guztiz osatu eta laguntzeko prest daudenei gonbitea luzatu nahi die antolaketa batzordeak.

Bestalde, 100 bat orrialdeko liburu bat argitaratuko da. Bertan, gerra aurretik Bergaran izan zen ikastolaren eta Aranzadi ikastolaren historia, ikasle izandako batzuen iritzia, hainbat argazki eta gaur egun ikastolan dabilzanen argazkiak jasoko dira.

Aranzadi ikastolaren 25. urteurreneko ekitaldiak antolatzeko aurrekontua bost milioi ingurukoa da eta horri aurre egiteko herriko erakunde entitate pribatu eta abarren laguntza lortu nahi da.



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 beheka ☎ 76 21 80-76 06 37



Asteburuetan
bertako babak eta sahieskia

SALBADOR, 10 ELGETA TLF., 76 82 73

Deco-Textil
ZANGITU

Etterako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

Ibabe eta Etxaniz kalean egon beharko liratekeela salatu da

Gestorek eta Senideek deituta, manifestazioa zapatuan

Jose Mari Etxaniz eta Iñaki Ibabe presoek eguastenean 17 urte espetxean bete zituztela salatzeko prentsaurrekoa eman zuten martitzenean Senideak eta Gestoretako kideek. Bertan adierazi zuten, kondenaren hiru laurdena beteta, 1995ko otsailaren 25a ezkerostik kalean egon beharko lirateke bi preso bergararrak. Jose Ramon Aiastuik, bestalde, iazko abuztuaren 9an bete zuela kondenaren hiru laurdena eta hau ere kalean egon beharko litzatekeela salatu zuten presoek senide eta lagunak.

Gestorak eta Senideak-ek mozioa sartu dute Udalean hiru presoen egoera salatzeko. Idatziak hiru puntu ditu: lehenengoan, hiru presoen berehalako askatasuna eskatzen da;

bigarrenean, askatasun eskaera hau gartzeletako epaileari bidaltzea, eta hirugarren puntuan, hiru presoen egoera gertutik ezagutzeko gartzeletara bisitatzera joango den udal komisioa sortzea eskatzen da.

Mozioarekin batera, hainbat ekitaldi antolatu dira egun hauetarako. Alde batetik, zapatu honetarako manifestazio ixila iragarri da, arratsaldeko 7:30etan San Martin plazan eta bestalde, datorren egunean, arratsaldeko 7:30etan Miguel Altuna zaharrean hitzaldi bat izango da "Askatasun kondizionala" gaiaren ingurukoa. Bertan Joxe Migel Azurmendi, 18 urtez kartzelan egon den preso ohia eta Gestoretako kide bat izango dira.

Antzuolako orriak

Berrigara astekarian atera nahi den Antzuolari buruzko orrientzat izena asmatzeko lehiaketa antolatu du Idolazek, Antzuolako euskara elkarteak. Edozeinek aurkez dezake bere proposamena. Proposatutako izena ezizen batez sinatu eta kartazal batean sartu beharko da, kanpoaldean ezizena jarri. Beste kartzal batean egilearen datuak jarri (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa) eta kartazalaren kanpoko aldean ere ezizena agertu beharko da. Proposamenak martxoaren 3rako, arratsaldeko 5ak baino lehen, Antzuolako Udaleko Euskara Zerbitzuan edo liburutegian entregatu beharko dira. 15.000 pezetako saria jasoko du irabazleak, baina epai-mahaiak hutsik laga ahal izango du saria, hala erabakiz gero. Lehiaketa hori girotzeko herri aldizkariari buruzko erakusketara egingo da Antzuolako Udaletxeko areto nagusian astebukaera honetan.

Aranzabal Lagunartea

Aranzabal Lagunartekoek Valladolidera Reala ikustera joateko irteera antolatu dute domekarako. Irteera, goizeko 8etan frontoian. Prezioa, 4.500 pta.

Gurasoentzako zinea

Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatuta, ertainetako 2. eta 3. mailan dauden ikasleen (15-17 urtekoen) gurasoentzat zuzenduta, "Africa" pelikula emango da datorren martitzenean 18:30etan Novedadesen. Osasun heziketaren esparruan drogomenpekotasunen prebentzioa lantzeko antolatzen diren jardueretako bat da zinea emanaldia.



Bi presoek 17 urte bete dituzte hainbat gartzelatan. Ibabe Langraitzera ekarri berri dute.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

ezpeleta

ostalaritza-ehunak

OSTALARITZA ETA EGOITZETARAKO MAHAI-ZAPI
ETA INDUSTRI-EHUNAK
SAN LORENZO, 1 TL. 76 17 09

JAKINA

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA



San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga, 10 behea. Telefonoa: 76 03 30. Faxe: 76 02

Sukalde eta bainu-erakusketa berriztu behar dugulako, beherapen ikusgarriak eskaintzen dizkizugu sukaldeko eta bainuko altzarietan, eta bainuko osagarri eta gortinetan.
ESISTENTZIAK AGORTU ARTE!!



6 URTEKO
GARANTUA


FAGOR

Sukaldeko altzariak



Juan Jose Alvarez

UNEDeko zuzendari berria



Zumaian jaio eta Zarautzen bizi den abokatua da zuzendari berria.

Victoriano Gallastegi alkateak, UNEDeko Patronatoko kideak, Bergarako UNEDeko zuzendari berria komunikabideen aurrean aurkeztu zuen joan zen martitzenean. Zumaian jaio eta Zarautzen bizi den Juan Jose Alvarez, Zuzenbidean lizentziatua, da urte hasieratik UNEDeko zuzendaria. Berarekin hitz egin dugu.

- Nola ikusten duzu UNEDen berregituraketa?

- Iaz egin zen berregituraketa beste urrutikako unibertsitate batzuk duten aurrekontuetara egokitze beharrezkoa izan zen. Estatuan zein atzerri- an dauden beste urrutikako unibertsitate batzuen batzuek aurrekontua 90 milioi pezetakoa da eta Bergarako UNEDen aurrekontua 200 milioi ingurukoa zen. Usate dut berregituraketa guztiz beharrezkoa zela. Aurten, 100 milioiko aurrekontua daukagu. Bestalde, Bergarako zentrua berrindartu edo odolberritu nahi dugu. Ikasle kopuruari dagokionez, beste unibertsitate batzuk jartzen dituzten mugak direla eta, urrutikako unibertsitateetara ohikoak ez diren ikasleak hurbiltzen ari dira eta gure helburua horiengana heltzea da.

Uste dut kalitatezko ikasketak eskaini diezaizkiegula. Beraz, betiko urrutikako ikasleengana ez zik, beste unibertsitate batzuetan sartu ezin duten ikasle gazteengana ere heldu dahi dugu.

- Bergarako UNEDek jarduera arautu gabeak eskaini izan ditu. Jarraitzeko asmoa badago?

- Bai, ikastaro bereziak antolatzen jarraituko dugu, beti ere zientifikoki interesgarriak badira eta Madrileko UNEDek onartu eta Patronatoaren oniritzia jasotzen badute. Gainera, kontutan hartu behar da hau urrutikako unibertsitate bat dela eta unibertsitate *arruntek* uzten duten hutsunea bete behar dugula. Esate baterako, enpresari buruei zuzendutako ikastaroak antolatzeak aukerak aztertzen ari gara ADEGIkoeekin; Jaurlaritzarekin ere harremanetan izan gara... Argi dagoena da arautu gabeko kalitatezko ikastaroak antolatzen baditugu, Bergarako UNEDen onerako izango dela.

- Euskal Kultur Departamenduak lagatako hutsunea betetzeko asmorik ba al dago?

“Auratu gabeko kalitatezko ikastaroak antolatzea da gure asmoa, Bergarako UNEDen onerako izango da eta”

- Bere momentuan Saktontze maila emateko aukera aztertu zen eta aurrera begira aukera hori ez dugu baztertuko.

- Esan daiteke, UNEDen berregituraketa prozesua amaituta dagoela?

- Bai. Gainera, bertako irakasle eta langileek erakutsitako jarrera oso ona izan da. Gaur egun UNEDen egun osoan lan egiten duten 7 irakasle eta beste 54 irakasle kolaboratzaile daude. Egun osoan lan egiten duten horrenbeste irakasle duen beste zentrorik ez dago estatu osoan eta horri errentagarritasuna ateratzea da gure helburua. Nola? Tutoria klase gehiago eskainiz, esate baterako.

- Ikasle kopuruari utsi egin al zaio?

- 1.996-97 ikasturtean, guztira 1.626 matrikula egin dira. Horietatik 1.546 araututako jardueretakoak dira. Iaz, berriz, 1.650 ikasle matrikulatu ziren

Bergarako UNEDen eta horietatik 1.609, araututako jardueretan matrikulatutakoak ziren. Beraz, etorkizunari begira baiko- rrak izateko itxaropenak izan ditzakegu eta esan daiteke gutxika-gutxika gure proiektua, bai herri- an, bailaran zein herrialdean sendotzen ari garela. Aurrera begira, EHU- rekin elkarlanari ekitea da gure asmoa, UNEDeko ikasleek EHUKo edozein fakultateko biblioteka erabiltzeko edo EHUKo kirol karneta izateko aukera izan dezaten, esate baterako.

- Eta zeintzuk dira gehien aukeratzen diren karrerak?

- Beste unibertsitate batzuetan bezala, Zuzenbidea, Enpresa-ikasketak eta Psikologia dira aukeratuenak. Bestalde, unibertsitateetara sartu nahi duten 25 urtetik gorakoan aldetik ere eskaera handia dago.

Oihulari Klown

Irribarrea mundu zabalera

Oihulari Klown antzerki taldeko kideak El Salvadorretik etorri berriak dira. Pailazoak mugarik gabe eta El Salvadorreko Las dignas gobernuz kanpoko erakundeen bitartez, hilabetez, bertako bizilagunen aurpegi- an irribarrea pizten saiatu dira. Idoia Azkarate taldeko kideak azpimarratzen duenez, "beraien begirada zertxobait alaitzea lortu genuen".

Mugarik gabeko pailazoak Balkanetako gerraren garaian jarri zen mar txan eta konflikto egoerak bizi dituzten herrialdeetara irribarrea eramateko helburua duen erakunde honekin kolaboratu izan du Bergarako Oihulari Klown taldeak. Virginia Imazek azaltzen digun moduan, "kooperazio lana egiteko asmoa genuen baina arazo nagusia hizkuntzarena zen, ezin genuen edozein tokitara joan. Eta joan zen urteko ekain aldera Las dignas, El Salvadorreko emakumeen egoeraz ar-



Oihulari taldeko kideak, hilabetez, El Salvadorreko elkarte askorekin elkarlanean izan dira.

duratzen den erakundeak gure lanaren berri izan zuen, bertan proiektu bat burutzeko aukera sortuz".

Dirulaguntzarik ez zegoenez, proiektuan parte hartuko zuten taldeen artean autofinantziatu beharra zegoen. Beraz, Trokolo, Zingili Zangala eta Oihulari Klown taldeek, Ga-

bonak aldean, diru bilketari ekin zioten Iruñean, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Bergaran bertan eskeinitako emanaldi saioen bidez. Iruñean eta Donostian erantzuna ezinhobea izan bazuten ere, Virginiak eta Idoiak hitz gogorak dituzte Bergaran izandako harreraren aurrean; "kristoren de-

zepzioa izan zen. Oso jende gutxi azaldu zen Zabalotegiko siora eta Udalak ere oso interes gutxi azaldu zuen. Ez dira elkartasun proiektu bonekin batera interesatu eta guretako lokal bat eskatu izan diogunean ere ezezkoa jaso dugu beti. umezurtz sentitzen gara. Badakigu Gabonak be-



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55

barbada ez zirela fetxarrik egokienak baina bestelako erantzun bat espero genuen. Gainera, ikusita San Martinen estampa ikuskizunerako zein azkar saldu ziren 2.000 pezetako sarrerak...".

Hiru talde elkarlanean

Azkenean, hiru taldeek 1.200.000 pezeta inguru jaso zituzten aipatutako emanaldiei eta azken orduan antolatutako zozketa bati esker eta urtarriaren 13an 11 lagun abiatu ziren El Salvadorrera, Oihulari Klowneko zazpi lagun eta beste bi taldeetako bina lagun. Esperientzia, Idoia Azkarateren hitzetan, guztiz aberatsa izan da; "ikusten da asko sufritu izan duen herria dela El Salvador eta beharrezkoa zen irribarrea ateratzea hango haur, gazte eta helduei. Miseri gorrian bizi den jendea da baina hala ere daukaten gutxi hori emateko prest daude, alde borretatik oso jende aberatsa da. Oso esperientzia bunkigarria izan da, negar malakoetan bukatzen genuen askotan". Virginiak gaineratzen duenez, "hara joan baino lehen jendeak esaten ziren ez genuela denborarik izango nahi genuen guztia egiteko han beste erritmo batean bizi direlako baina Las dignaseko lagunak terremoto butsak ziren eta hilabete

osoan ez dugu gelditu ere egin, ia El Salvador osoa zeharkatu eta 3 egun libre izan ditugu bakarrik".

Emanaldiak edozein tokitan ematen zituzten, "hemen onartuko ez genituzkeen leku askotan akutuatu beharra izan dugu: ambulatorioan, inolako osasun baldintzarik betetzen ez zuen azoka batean... eta horrelako asko". Biolentzia, tratu txarrak eta bestelako gaiak jorratzen zituzten euren emanaldietan, jolasak, ipuinak, klown tailerrak... etabar eskeiniz; "jendea liluraturik geratzen zen, parre sanao erakusten zuten eta guretzat oso opari polita zen hori. Lehen egunetan irripargutxiago ziren baina hizkuntza eta erreferenteekin asmatuz joan ahala gero eta hobeto komunikatzen genuen beraiekin" azaltzen du Virginiak.

Terapia egokia

Oihulari taldeko lagunek oso aberasgarritzat jotzen dute proiektua bai hango jendearentzat eta bai beraiarentzat ere. Idoiaren ustetan, "argi daukagu barrerak egitea beldurra uxatu eta askeago sentitzeko baliogarria izan zaiela eta horrek gure pailazolan konfiantza izateko balio izan digu. Pailazoak badaki jendearekin kontaktatzen, entzumena

asko lantzen delako eta emozio haundiko egoerak bizi izan ditugu. Ez daude batere ohituta horrelako emanaldiak ikustera eta liluraturik geratzen ziren. Haurrek adibidez zera galdetzen ziguten: ¿vosotros sois los payasos del mundo?".

Oihularik eta bere lagunek harreman haundia egin dute bertako elkarte askorekin eta aurrera begira bueltatzeko asmoa daukate; "hala ere, errealitatea ezagututa, beste modu batean antolatuko genukeen, behar bada leku askotan ibili

beharrean talde edo zona batean gehiago sakonduko genuke".

Orain, Bergarara bueltatu bezain laister, Oihulari osatzen duten 11 lagunek lanari ekin diote. Laister bi ikuskizun berri estreinatuko dituzte, Zain (amodio idealaren itxaronaldiari buruzkoa) eta Pekin 36.002 (Pekinen izan zen emakumeen konferentziaren gainean) izenburukoak. Ueberan alokatutako lokalean, Oihulariakoak irribarrea ahalik eta leku gehienetara eramateko lanetan dira.



Era askotako emanaldiak eskaintzen ditu Oihulari Klownek.

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

**ZABALETA
ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraian.
Tfnoa: 76 27 93



EUSKALDUNON

1997

Gida

Elektrikariak

Suhiltzaileak

Iturginak

Aseguruak

Sarrailagileak

Bidaiak

Jatefexak

Informazioa:
☎ 943-300222

e u s k a l d u n o n
Egunkaria

Ileapaindegiak

Ikuskizunak

Argazkilariak

Haurtzaindegiak

Mekanikariak

Dentistak...

K
O
M
E
R
T
Z
I
A
L
A

LEHEN SARIA:
Xabier Larrañaga.
Getxo. 26 urte.
BESTEREN
NAHIAK
BETE NAHIAN.

N-1, Club Ederrena,
97-1-10

Manuelinho:

Pentsa ezazu larra jotzen dudako bakoitzean gure arteko amodioa handitu egiten dudala, nor-nahiren esku heze eta mihi lizunek ikutzen nauten bakoitzean zeu

zeure, bihotza gauza bakarra. Santo Domingora bueltatzeko dirua lortu artean bihotzarekin konformatu beharko duzu, eta hobe horrela. Lau asteotan jaso ditudan kolpeen orbainak ez dira zureak izanen, lau asteotan ez zintuz inoiz ere leporatuko, pentsa ezazu belarriak, mihi, begirada eta hitz goxoak alokatu egin ditudala, eta haietan isuritako pozoin guztiak ez direla zuri emandako musu urrunak baino, beti ere urrunak. Eta zainetan barrena borborak ari diren haserre eta nahigabe guztiak

egin, eta sekulan ezagutu gabeko hasperen eta bultzadak mila aldiz agoantatuak. Eta hori guztia, Manuelinho, zurekin familia osatu nahi dudalako, zurekin bizi, hil eta lo egin nahi dudalako. Batzutan argi gorritan Santo Domingoko amets berriak ikutzen ditut. Eta azal zuriko gizonak nire gainean bufaka eta lerdeka ari direnean zure azal beltz-beltza, zure azal gogorra ari naizela besarkatzen egiten dut amets. Baina ametsak amets, eta Santo Domingo, oraingoz, amets.

maiteago, nire lankideek dirua baino maiteago, eta ziur naiz zeuk ere maite nauzula, maite orain ondoan izanen duzun edozein Teresita baino maiteago, atzo zure ohorea berotu zuen edozein puta baino maiteago. Eta joko honek irauten duen bitartean Teresita, Maria Luisa, diruz jositako bezeroak eta gogoz betetako mutil gazteak zilegi izanen dira, horretan dago tratua. baina jakin ezazu, jakin, partida amaitzearekin gatibu izanen zaitudala, zure besarkada ametsetan baino ez zaituztela izanen, orain neuk zaitudan moduan. Orduan bai, orduan orain arte ukatu dizkizudan desio guztiak bete ahal izanen dituzu, eta larra bost mila aldiz joko dugu, eta bost mila musu emanen dizkizut, eta bost mila aldiz ospatu eta madarikatuko dugu hona etortzeko erabakia hartu genuen eguna. Eta zure azal beltza ukitu eta laztandu duten bost mila urdanga horiek inoiz izan ez diren amesgaiztoak besterik ez dira izanen, eta nire inozentzia galdu duten bost mila gizon penatuak nire gorputz gainera botatuko ekaitz ahaztuak izanen dira. Ordura arte pasa beharreko oinaze eta penak alegantzia bilakatu eta betiko zoriontsu biziko gara Santo Domingoko karriketan galduak. Beno, Manuelinho, ez zaitut nekatu nahi, badakit nire esperoan segitzen duzula, badakit gauza hauen berri izatea ez duzula gogoko, baina aspaldian errana da, egirik mingotsenak gezurrik ederrenak baino min tikiago egiten du. Adio, ongi portatu eta Teresitarekin botatuko izerdi guztiak nireganako amodioak lehor ditzala. Adio, Rosalia ■

BIGARREN SARIA:
Maialen Torre.
Mugerra (Lapurdi).
18 urte.
EGUNON
PAKITO

Egunon Pakito

Andereñoak erran digu gaur goizean ez zinela ikastolarat etorriko eri zinela. Orduan erabaki dut zuri idaztea, baina itxoin dut etxean izaita, bestela Luis-mi eta Artzai nitaz trufatuko ziren. Airehartzean nere urte betetzeak ospatu ditugu eta bixkotx haundi bat jan dugu. Kandelak ufatu aintzin desio bat egitea erran didate, orduan nik zuri pentsatu dut azkarki, eta galdegin dut fite sendatu zaitezten, eta ahal bezain fite ikastolarat itzul zaitezten. Orduan nere bederatzikandak bat banaka itzali ditut, eta "Zorionak zuri" kandatu didate lau hizkuntzetan. Maritxu eta Hegoari bakarrik erran diet nere desioa. Maite dut hemen zarenean. Beti irri egiten dugu. Badituzu begi politik, eta ere irripar polit bat. Maritxuk erran dit ongi ikusten ninduela zurekin ezkondua, biok begi politik ditugulako eta nota onak ditugulako matematiketan. Nik nahi nuke zurekin ezkondu beti zurekin egiteko eta beti musuak egiteko. Joan den aldiaren egin zenidan muxuaz oroitzen naiz eta ere gordeka egin ginuenaz ere gero. Oraindik marka badut lepoan eta horregaitik zapi bat ezartzen dut lepo inguruan. Ikastolarat itzuliko zarenean, gure etxolarat eskapatuko gara eta muxuak egingen dizkizut aho gainean eta jantziak erantziko ditugu eta ondoan etzanen gara. Goxokiak atxiki ditut gaur goizean zuretzat eta emanen dizkizut maite zaitudalako. Fite fite sendatu. Pantxika. ■



ANDONI ETXEBERRIAK,
JARDUNEKO LEHENDAKARIAK,
EMAN ZION LEHEN SARIA XABIER
LARRAÑAGA GETXOTARRARI

zaitudala gogoan, bost milakoa ematen didaten bakoitzean sukaldea hornitu eta egongela apaintzeko ahaleginetan ari naizela. Horixe pentsatu behar duzu, horixe eta ez besterik. Gehienek zineman, autobusean edo kafesne aspertu baten inguruan maitasunaren sua pizten duten gisan guk besteren gogo zikinak asetzearrekin egiten dugu amodioa, amodio urruna izanda ere. Badakit lanbide hau ez zaizula batere gustatzen, badakit nire sabela, ditiak, bernak eta bihotza zure ondoan balira hobe biziko ginatkeela, baina oraingoz bihotza duzu

hemen utziko ditut, birginitatea hemen utzi dudana bezala. Dena dela, nago ez ote den erridikulu xamarra hamaika aldiz zuri ukatuta hemen hain axolagabeki eskleini beharra, usu elkarrekin izandako beroaldi eta zirri ezkutuak hemen hain ageri saldu beharra. Bost mila pezeta nahiko, orain artean eta zure aurrean eutsi diodan jarrera tinkoa bost mila puskatan txikitzeko. Bost mila aldiz putetxez putetxe ibilitako bilete bat nahiko, zuri egindako bost mila agindu eta ukatze bertan behera uzteko. Eta inoiz egin gabe nuena mila aldiz

Pentsa ezazu, pentsa, mundua bost mila kolorez margotutako partxis handi bat dela eta kolore bakoitzean suerte guztietako nahiak eta ezinak elkartzen direla. Eta jokoa bukatzekotan, maiz adiskideak, senideak eta amodioak zapaldu eta irentsi egin behar direla. Eta askotan betiko desagertarazi. Jokoaen bukaeran, aldiz, zoriona nagusi, eta atzean utzitako oztopo eta nahigaberik gehienak ahortzi egiten ditugu. Eta horixe nire esperantza tikiak, horixe nire sufrimendu guztien justifikazioa. Maite zaitut, Manuelinho, maite nire bezeroek emaztea baino

Herri Irratia

RADIO POPULAR

DONOSTIA - O.M. 1.224

- **MANQUI.** Mamut merkatalgunea. Oiartzun. Andregaiaren jantzia.
- **AUZMENDI JOSTUNDEGIA.** Donostia. 25.000 pezetako erosketa txartela.
- **VALENTIN ARGAZKI BIDEOA.** Errenteria. Argazki kamera, poltsa eta bidaiko argazkien errebelatua.
- **EROSKI BIDAIK.** Astebeteko bidaia Canariasera.
- **CODORNIU.** Ezkontzarako cava.
- **ALKORTA ZURGINDEGIA.** Donostia. Flex Multielastic koltxoia.
- **JAUREGI ETXEA.** Hernani. Presidentziako bazkaria edo afaria.
- **AITZBELTZ.** Andoain. Zanussi etxeko mikro-uhin labea.
- **ALFONSO ESTALAYO.** Donostia. Jatorrizko grabatua marko eta gutzi.
- **NATIONALE NEDERLANDEN.** Donostia.

LOIOLA - F.M. 99,8

- **BAYON.** Donostia. Andregaiaren jantzia.
- **TAYLOR-HARRODS.** Gasteiz. Senargaiaren jantzia.
- **OSCAR VITORIA BITXITEGIA.** Arrasate. Urrezko eraztunak eta zilarrezko bandeja.
- **IKER HALTZARIAK.** Arrasate. Mahaia, aulkiak eta banketak.
- **CODORNIU.** Ezkontzarako cava.
- **BERIAK PERTSIANAK.** Eibar. Etxerako osagarrien bilduma.
- **OCASO ASEGURAOAK.** Eibar, Beasain. Bizi eta etxeko aseguroa.
- **ARKAUZ HALTZARIAK.** Aretxabaleta. Koltxoia eta xaflazko oinarridun bilduma.
- **KIMETZ ILEAPAINDEGIA.** Azpeitia. Ezkongaien ileapainketa.
- **EROSKI BIDAIK.** Astebeteko bidaia Canariasera.
- **ETXEBERRIA.** Azpeitia. Mahai tresneria, baxera eta kristaleria.
- **LASA JATETXEA.** Bergara. Lau menu dastagarri.

1997ko abenduaren 31a baino lehen ezkontzeko asmotan bazarete, bete orri hau eta bidal ezazue, lehenbailehen, helbide honetara:

HERRI IRRATIA-RADIO POPULAR:
Garibai, 19 Donostia.
1.849 postakutxatila DONOSTIA.

...edota...

HERRI IRRATIA LOIOLA
Azpeitia
26 postakutxatila AZPEITIA

Senargaia (Izen-deiturak): Telefono zenbakia:

Kodea: Herria: Helbidea:

Andregai (Izen-deiturak): Telefono zenbakia:

Kodea: Herria: Helbidea:

Ezkontza eguna (gutxi gora-behera) :



JON SANCHEZEK JASO ZUEN BERGARAR ONENAREN SARIA, MIEL ANGEL ELUSTONDO EPAI MAHAJKIDEAREN ESKUTIK.

IRAKURLEAREN SARIA
Joseba Santxo.
 Getxo. 34 urte
HALAN BEHAR

1997ko hilbeltza

Hara, maitea!

Badakit ez zarena nirea bakarrik. Eta hori irentsirik eta gainditurik dudanez gero, zuri sekretu batzuk kontatzera ausartuko naiz. Hasieratik bertatik sumatzen nuen ederregia zinela nirea baino ez izateko. Hala ere, onartu egin zitudan. Hala ere, onartu egin ninduzun. Areago, zure egin ninduzun. Ni makalegia nintzen zure tirari uko egiteko. Orain baditut mila motibo kezkatzeko. Jende askoren ahoak gozatu dituzu, gozozale horrek! Gainera, bisexual bihurtu zara, berdin laztantzen baitituzu gizonezkoen zein emakumezkoen ezpainak. Baina nik ezin ihes egin zure enkantuei. Gogoko nituen -eta dituzure gorputzaren neurriak. Hain dira aldakorrak! Batzuetan txikiak, besteetan handiak, lehen laburrak, orain luzeak, gero bereziak...

BERGARAR ONENA:
Jon Sanchez.
 21 urte.
ZERURA

batzun buruan muxu batez amaitzen giñuan hitz-dantzia, arrazoia neukala frogatzera heltzen nintzan momentuan bertan. Ja! Ja! Hemen egon ezkerro hau entzutian jarriko ziñukeen musua garbi garbi ikusi leiket: sapo-begixak, hipopotamohua, eta goizeroko baxoerdiek sortutako masail gorrituen esplosioña, musua bere zabaltasun osuan odolez margotuz. Baina ez zare hemen, eta lehen jartzen ziñuan musu bera eukiko dozunik ezin dot ziurtatu, musua daukazula ziurtatzeik ez daukaten bezela, edo zergatik ez, hor nonbait zaren ez dakidan legez. Entzun Julio, bost urte baino gehixau die hil ziñanetik, eta egun hartatik aurrera oso bakarrik sentittu naiz. Berriak? Ba beira, badakizu, Julio zapatakaja bat baino txikixagua dan etxe batian bizi da eta ezin nau berakin euki, Pello atzerrira jua zan bizitzera eta ni ez nago bidaia luzetarako, eta Miren, bueno, Mirenek bere bizitzatik ezabatu in nau, gaizkile batek bere aztarnak ezabatzen dittuen bezelaxe. Baina, eta honen kontura dator kartia, egun batian Martin ezautu neban, eta

ez dakitt, aspaldi izotzia uste neban bihotzian, somatua izateik nahi ez zeban berotasun apal bat topau neban. Elkarrekin pasau dogunaren ostian ez natzaizu oin gezurretan hasiko: maitte dotela uste dot. Ez, ez zu maitte izan ziñuzan lelotasunaz, ez bixok busti giñuzen ezinegonaz, baina bai bihotz-bihotzez, hainbeste denboraz itxoin doten erregalua dala dakixetelako, eta bakardadiak, zuk ez dakizu zelan, maitatzera behartzen dabelako. Hau kartioi idazteko iñungo obligaziñoik ez neukan, baina ez dakitt, zurekin hain momentu onak pasau eta gero

detailetxo hori behintzat sor notzula pentsau dot. Berakin bizitzera noiala jakin daizun nahi neban bakarrik eta posible bada behintzat, gehixen maitte izan doten personak emundako oneritzixa. Hori bakarrik zan, baina badakizu, ohitura batzuk ez die galtzen eta ondiokan telebistaik ez zeguanian sukaldeko atsalde haretan in oi neban bezela, gaur egun de berbetan hasi eta gelditzeik ez daukat. Beno, esan biharrekuak esanda darella uste dotenez agurtu ingo naiz, muxu bero batekin, eta noizbait, nunbait, elkar ikusiko dugulakoan.

Besarkada bat. ■



JOSEBA SANTXO GETXOTARRAK IRABAZI DU IRAKURLEAREN SARIA.

Nere potxoluai:
 Zer moduz hor goixan?
 Mundu hau uzten zeban bixotako lehenak haura nolakua dan bestiai argitzera bueltauko zala elkarri zin egin gontsan, baina cz za bueltau, alproja hori! Han ibiliko za, hemen bezela, neska pinpirin danen atzetik, zapatak lerdeak bustitita daroiazula. Barkatu azkenengo bromioi, baina zurekin berriz be mintzatiak noizian behin bata-bestiai oparitzen gontsan adarjotzeak ekarri dost gogora, eta ezin izan dot barrenak bidali dostan gogoeta neretzat gorde. Gogoratzen al dozu Koxme eta Xeberiren zilarrezko ezteixetan jendiak gure kontura bota zittuan barre algarak? Egixa esanda, herriko bikote alaiena giñan, eta baitta elkar gehixen maite zebana be, ezta? Diskusiñoen bat hasten giñuanian, geldittu eziñik hasten giñan elkarri biraoka, baina ordu



MIGUEL ALTUNA ETA IPINTZA INSTITUTUAK BERGARAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

*D eta B eredu
euskaldunak*

*1. zikloa: 12-14 urte
2. zikloa: 14-16 urte*

GURE HEZKUNTZ PROIEKTUA:

INTEGRALA, EUSKALDUNA, BATERATUA, ANITZA, DOANEOA, GURASOEN PARTAIDETZA

BALIABIDEAK

- Gela bereziak:
 - Teknologia.
 - Informatika.
 - Adierazpen Artistikoa.
 - Ikus-entzutekoa.
- Laguntza gela.
- Elbarrituentzat egokitutako eraikina.

AUKERAKOEN ESKAINTZA ZABALA

- Alemana eta Frantsesa.
- Informatika.
- Tailerrak: Osasuna. Elikadura. Komunikabideak. Matematika. Asmakizunak. Bertsolaritza.

ZERBITZUAK

- Garraioa dohainik.
- Jantoki subentzionatua.
- Orientazio departamendua.
- Pedagogia Teraupetikoa.

ETOR ZAITEZTE MATRIKULATZERA GURE IKASTETXERA OTSAILAREN 28ra ARTE

Helbidea: Boni Laskurain, 17. Tfnoak: 76 20 82 - 76 07 08

Ordutegia: Goizez: 9:00-13:00. Arratsaldez: 14:30-16:30



Baina besteei ere gustatzen omen zaizkie zure neurri horiek, bai gustatu ere! Askotan pentsatzen dut maitale txarra hartu dudala. Lehen uste nuen edadeko jendea baino ez zenuela gustuko, baina gero eta sarriago ikusten zaitut gazte jendearekin. Eta eurek gero eta maiteago zaituzte.

Baina nirekin garbi jokatzeko duzu. Horrenbeste ezin ukatuko dut. Horiekin guztiekin ibili eta gero ere, berriro zatorz neugana, ezer gertatu ez balitz bezala. Berriro uzten didazu nire gurari eta kutixiak zeure baitan asetzen. Orain arte, behintzat, ez didazu sekula ezetz esan. Eta nik uste dut horrexegatik maite zaitudala.

Beno, ez horregatik bakarrik. Egia esan behar badut zure gorputzak beti erakarri izan nau. Batez

ere, eta zuk badakizu, zure oinak gustatzen zaizkit, hain dira arinak, hain dira jostariak. Aspaldi erreparatu nien nik zure oinei. Bai eta ibileran zure oinek egiten duten hotsari ere: xarmagarria.

Tira, baina egiak aitortzen hastekotan, aitortuko dizut zu ere ez zarela perfektua. Akatsak ere badituzu. Esaterako, inoiz inpresioa hartu dut ez ote duzun hanka bat luzexegoa edo.

Hala ere, ez larritu, maitea, gehienetan hankak ongi lerrokaturik eta neurturik dituzula iruditzen baitzait. Baina utzidazu barneratzen azterketa anatomiko-sentsual. Zure oinetan ere, hain politikak izanagatik, inoiz akats bat edo beste ikusi izan dut; oinak, une batzuetan, igualegiak ez ote dituzun pentsatu izan dut inoiz,

baina tira, zail da, egun, maitale perfektua aurkitzen.

Ahotsa, adibidez, ez duzu txar-txarra, opera kantatzen hasteko asko falta bazaizu ere. Gainera ez da aparteko ahotsik behar esan beharrekoak esateko, ezta?

Baina, -eta honetan ez dut batere exageratuko-zugandik gehien liluratzen nauena, erabat txoratzen nauena, zure miresle izatera ezinbestez kondenatzen nauena, daukazun bat-batekotasuna da, dudarik gabe. Badakizu edozein tokitan ibiltzen, edozein rol-etara moldatzen, edozein egoerari aurre egiten.

Itzela zara, maitea, beti berdina eta beti desberdina. Badakizu, gero, unearen arabera janzten, batean soineko luzez, bestean soineko laburrez. Badakizu

sentimenduen arabera dantzatzen, batean doinu alaiari, bestean doinu tristearen.

Hala ere, ez pentsa guztien begikoa zarenik. Baten batzuek ezin ikus zaitzakete. Hainbatek ulertu ere ez zaitu ulertzen eta, ulertzen zaituztenetatik, zenbaitek -oso gutxik zorionez-muturrekotzat jotzen zaituzte. Muturrekoak ematen badakizulako izango da akaso...

Baina ez kezkatu, maitea, horiek ez baitakite zure edertasuna estimatzen. Gainera, zure familiako batek behinola esan omen zuenez, "... gusto guztiak ez dira munduan".

Baina, aski da. Hustu ederra egin dut oraingoan ere. Une honetan bagitantzen zait larregi hitz egin dudala, urrunegi joan naizela neure aitortza honetan.

Oraingoan kito!! Gehiago entzun nahi badituzu, aurrez aurre kontatuko dizkizut, bertatik bertara, seguru bainago luze gabe berriro egongo garela, parrandaren batean edo. Bien bitartean, ondo segi niri adarrak ipintzen, ipurzoror horrek!

A, portzierto, orain dela gutxi, Bilbon ikusi zintudan zortzi gazteren erdian oso toki dotorean. Euren ahoak polito musukatu zenituen, musumerke horrek. Batez ere, ile laburreko patilladun batena, eta, gainera, bertan zegoen hainbat lagun belarriak ere ez zenituen ferekatu gabe utzi. Ase-ezina zara, benetan!

Baina tira, neurea da errua. Izan ere, hauek guztiak pasatu behar ditu bertsoarekin maitemintzen denak! ■

AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETAN SARITUAK. ARGAZKIAN, BIGARREN SARIA JASO ZUEN MAIALEN TORRE FALTA DA, SARI BANAKETA EKITALDIRA EZIN IZAN BAITZEN ETORRI.



Zure etxean, nork egiten ditu etxeko lanak?



Manuel Egibar

Arrebak. Laguntzarik? Bai, laguntzen diot, errekauek eginez adibidez. Ahal den guztietan ahalegintzen naiz laguntza ematen.



Igor Fernandez

Amak normalean. Nik oso gutxi egiten dut, denbora gutxi daukat eta. Lanetik irten, etxera joan eta berriz lanera.



Eugenia Usabiaga

Gure etxean biok egiten dugu, senarrak eta biok. Semeek ere euren ohiek beraiek egiten dituzte. Lana banatuta daukagu.



Begoña Aristi

Amamak eta biok. Batzutan erdi purdi ibiltzen gara baina ondo konpontzen gara. Gutxien gustatzen zaidana? Kortinak garbitzea.



Susana Fernandez

Nire amak, nahiz eta berak ere etxetik kanpo lan egiten duen. Nik ere, etxean nagoenean, laguntzen dut eta nire aitak ere laguntzen du piskat.



Manuel Ferreira

Emazteak normalean. Baina ez zait laguntza ematea ardura: erropak eskegi, jaso, errekauek egin... eta horrelakoak. Janaria prestatzea berriz ez zait gustatzen.

Siaska

Dena zure
haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

TABERNA
ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta
afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

SIRIMIRI

jatetxea

PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

REMENTERIA

Altzariak


Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorenzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23



Sorpresatxoa

Urtebete luze darama Kapirixo Elkarteak Elosu-Plazentzia deituriko eremu megalitiarra garbitzen. Igandero eta eguraldiak laguntzen duenean talde txiki bat abiatzen da goizeko zortzi t'erdietan Elosutik Karakatera luzatzen den mendilepoko trikuharriak garbitzera.

Kostata egiten dugun lan honek izaten ditu bere momentu onak (denon artean konpartitzen dugun hamarretakoa) eta, batez ere, bertan sortzen den lagunarte giroa da gauzarik ederrena.

Hauetaz gain, badira sorpresatxo edo ezustekoak gure igandero lan neketsua arintzen dutenak. Horietako bat duela hilabete suertatu zitzaigun: Agarreburuko trikuharria berriro ere garbitzen ari ginela, lankide batek eskutan zuen gauza baten berri galdetu zidan.

Ikusi orduko, irribarrea eta ospatzeko gogoia etorri zitzaizkion idazten duenari, izan ere, aurkituriko gauza hori **harleunezko aizkoratxo** bat bait zen. Garrantzizkoa al da aurkitu dena? Dena da erlatiboia, baina baietz esango nuke. Alde batetik, ez da txepelkeria bat Kobre-aroko (orain bost mila urteko) aztarna bat aurkitzea.

Bestalde, aipaturiko eremuan aurkitzen den bigarrena da (beste bat Keixeta Egya Hegoaldekoan aurkitu zen). Horrela bere momentuan (1921ean) egindako indusketa edo eskabazioan aurkituriko erreperitorio xume eta motza (oso aztarna gutxi agertu ziren) zertxobait aberasten zaigu.

Itxaron dezagun egunen batetan herriak izango duen museo bitrina batetan ikustea.

Xabier LARRAÑAGA



Muina

Giro nahasia ei dago. Gertakizunak bata bestearen atzetik sekulako abiadan ei datoz eta aurrekoa ulertu baino lehen beste bat gailentzen zaio inork ezin antzeman duen erreskada "zoroan". Hain beste "zuhaitz" eta "sastraka"ren artean, basoaren nolakoaz jabetzea zailagotu egiten zaigu.

Nork gogoratzen ditu orain sei hilabete, urtebete edo bost urte gertatutako gauzarik garrantzitsuenak?

Bergarar batzuk, aurretik konponduko ez balitz behintzat, 2.012. urtean urtengo lirategi espetxetik. "Kasualitatez" orduantxe beteko da Nafarroako Erresuma iraungi zen bosteugarren urteurrena. 500 urte igaro eta euskaldunak burrukan oraindik. Tarte luzea joan da, baina azpitik betiko ibaia abian: Herri baten bizia historiaren harian, biziraupena, askatasuna eta etorkizunari atxiki nahian.

Orain hurrengo bergarrek, poz eta kezkatarako bizi izandakoa: J. L. Elgoro, ezinbestean, herbesteratu behar, Aranzadi ikastolak bere 25. urteurreneko ospakizunak antolatzen, Bergarako presoak gose greban bata bestearen atzetik atzerriko espetxeetan, Fagorrek eta Vaillantek fabrika berri bat antolatu dute, herrikide batzuk tiroz inguratu zituzten Bilboko manifestaldian, San Martini buruzko antzeppen handiaz gozatu berri dugu eta aste honetan bertan batzuek ez dute salatu nahi izan HBko Mahai Naionalekoen espetxeratzea - Madrili begirune handiagoa euskal anaiei baino?-

Nahasi samar ipini ditut gauzak, aitortzen dut. Zera adierazi nahi dut, hots, burubide argia duen Herria dugula gure artean. Hizkuntza, kultura, ekonomia eta elkartasuna askatasunean kudeatzea nahi dugu. Eta burujabetza lortu ezean beste bostehun urte berdintsu jarraituko dugulakoan nago. Ez dut etsipenez esaten, pozez baizik. Zorionerako ote 2.012. urtea?

Fermin LAZKANO

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45



■ **Karnabaletako martxosoenak**

Argazkian agertzen den koadrilak **Bedelkarrek** Karnabal martitzenean banatutako **saria** eskuratu zuen. Herriko dendariak egunean zehar animazio gehien jartzen zuen taldea saritu nahi izan zuten eta Afrika beltzetik etorritako lagun talde honek, sari modura, elkarteko taberna edo jatetxe batean **25.000 pezetako afari merienda**



egiteko aukera ematen dion txartela jaso zuen. Argazkian Consuelo Ibarra eta Maribel Suinaga Elsa Rodriguez Bedelkarreko presidentearen eskutik saria jasotzen. On egin!!



■ **Manu Muniategiandikoetxea ARCOn**

Manu Muniategiandikoetxea bergarar margolariak **Madrileko ARCO ferian** erakutsitako lanek erantzun ezinhobea izan dute. Manuk bost kuadro saldu ditu ARCO Arte Garaikidearen Feria ospetsuan, horietako bat Coca Cola Fundazioari eta beste bat Arabako Arte Ederretako Museolari. Era berean, Madrilan eta Valentzian erakusketak egiteko proposamenak jaso zituen. Manu Muniategik Donostiako DV Galeriaren bitartez erakutsi zuen bere lana eta euskal artisten artean gehien saldu zutenen taldean dugu Manu. Zorionak!!

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
 Ibargarai, 2
 ☎ 76 51 65

IZADI PILI GISASOLA
 Zurradero, 2
 behea.
 ☎ 76 58 83 **Santiveri** 
 Osasun eta Dietetikan
 espezializatutako zentrua

SUBIJATI
Gazteentzako moda
 Irizar, 1 ☎ 76 42 41



■ **Atun latak Saharara**

“Sahararen lagunak”

governuz kanpoko erakundeak atun latak biltzeko antolatutako kanpainak erantzun ona izan da gure herrian. Azken asteetan herriko komertzioetan eta

Udaletxean bertan (argazkian), guztira, **700 atun lata** inguru jaso dira. Saharauek basamortuan kokaturiko kanpamentuetan elikadura lehen mailako helburua bihurtu da. Errefuxiatuek 20 urte baino gehiago daramatzate arrain feskoa jan barik eta beraz arraina ordezkatzeko elikagaiak primeran datozkie. Euskal Herri osoan jaso diren atun latak astebukaera honetan bidaliko dira Sahara aldera...

■ **Kapirioxoren irteera**

Kapirixo elkarteko kideek irteera egin zuten domeka goizean **Ibaizabal ingurura**.

Eguraldiak lagunduta, guztira, **40 lagun** inguruk hartu zuten parte eta irteera mamitsua izan zen, dudarik gabe. Besteak beste, Elorrioko eliza, jauregi eta hainbat auzo bisitatu zituzten. Miota auzoko San Bartolome elizan dauden sarkofagoak edo

Berriozabaletako iturri inkari (argazkian) buruzko azalpenak ere jaso zituzten Kapirixoko lagunek. Abadiñon bazkaldu ondoren, Mendiolako haize-errota ikusten

egon ziren eta azkenik, etxera bueltatu baino lehen, gidarien eskutik Elorrioko San Agustin elizaren ezaugarriak aztertzen izan ziren. Plan ezinhobea domeka baterako...



Zertan dihardute ba?



Asier Altuna “Kixi”k, Telmo Esnalekin batera, bere lehen zine laburmetraia errodatuko du astelehenetik aurrera. Sagardotegi batean girotuta, laburmetraiak “Txotx” izenburua izango du. Errodaia, astebetez, Aieteko Munto baserrian egingo dute “Kixi”k eta bere lagunek. Aktore lanetan Paco Sagarzazu, Candido Uranga, Arantxa Izeta eta Anartz Zuazu arituko dira. Mikel Laskurainek ere hartuko du parte eta Oihana Gardokik, berriz, produkzioaren ardura izango du. Hilabete barru laburmetraia prest izatea espero da.

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak. Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
☎ 76 60 39

BERGARA
☎ 76 19 98

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik




Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Ifnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Migel Mendibil

Aurretik Santa Marinako txurrerian lanean izan ondoren, dagoeneko 27 urte dira Migel Mendibil "Txurreroa" k (60 urte) eta bere emazteak Kortazar taberna martxan jarri zutenetik. Gaur gutxi izango dira bere pintxorik dastatu ez dutenak.

- Barra ala sukaldea?
- Sukaldea.
- Zergatik ez duzue txurrorik egiten?
- Jendeak jateari utzi ziolako eta orain eske etortzen dira...
- Non ikasi zenuen sukaldaritza?
- Neure amarengandik.
- Etxean nork prestatzen du bazkaria?
- Normalean andreak.
- Sukaldari bat.
- Subijana.
- Zure plater faboritoa?
- Kokotxak angula eta almejekin.
- Eta zure espezialitatea?
- Horixe!! Ez dute beste inon gertatzen...
- Eta pintxoetatik?
- Urdaiazpikoa txakarekin da arrakastatsuen...
- Zenbat pintxo zapatu batean?
- 700 bat bollo gertatzen ditugu.
- Ardo on bat?



“Amarengandik ikasi nuen sukaldaritza; etxean andrak gertatzen du bazkaria normalean. Perretxikotara joatea eta arrantzan ibiltzea gustatzen zait. Kanadara salmoitan egitera joango nintzen”

- Faustino lehena.
- Hobby bat?
- Perretxikotara joatea.
- Eta arrantzan egiteko, erreka ala itsasoa?
- Erreka nahiago, Murietan, Iraetan edo pantanoan ibiltzen naiz.
- Egunkarian lehenbizi irakurtzen duzuna?
- Politika kontuak.
- Eta zer ez duzu sekula irakurtzen?
- Horoskopoa eta denborapasak.
- Kirol bat.
- Futbola.
- Kirolari bat.
- Gaztelu eta Olano.
- Inguruko mendi bat?
- Urbia.
- Bergarako txoko bat?
- Goenkalea.
- San Martinen estanpan apaiz, mezetara joaten zara?
- Bai. Baina konfesatzera ez dator inor hona...
- Etxeko lanetan laguntzen duzu?
- Bai.
- Zerk jartzen zaitu sutan?
- Fregaua egiteak.
- Eta zerk lotsarazten zaitu?
- Ezerk ez.
- Amets bat?
- Hilabete Kanadan salmoitan egitea.
- Eta 100 milioi irabaziz gero, zer egingo zenuke?
- Erdia errepertidu eta beste erdia andreari administratzeko eman.

EDEL

TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA

Isabel Benito eta Aitziber Payrosen kontsulta.

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

Loditasun orokorra eta lokalizatua

Zelulitisa • Aknea

Tinkotasun eza • Zimurrak • Etab.

Baita Masaje Terapeutikoa eta Drenaje Linfatikoa ere.

Isabel Benito eta Aitziber Payrosen kontsulta:

Bidekurutzeta, 46 behea

Txanda hartzeko deitu | 1:00etatik 16:00etara 76 52 62 telefonora.

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Burdiñan-ten, 2,6 milioi. ☎ 76 31 79.

Txalet bat erosi edo alokairuan hartuko nuke Deba Garaian. ☎ 76 91 30.

Pisua salgai Frontoian. ☎ 76 24 42.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Pisua salgai Donostian, Amaran. ☎ 76 31 79.

Pisua salgai Martokuan. ☎ 76 59 96.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 70 82 90.

Garajea salgai Santa Marinar. ☎ 76 18 95.

Pisu amueblatua salgai Mugertza kalean, 3. zenbakian. ☎ 76 53 79.

Arrasaten karabanendako lokalak alokairuan. ☎ 76 38 26.

Pisua salgai Aranerrekan, Bolun. Altzariekin, 80 m², egoera onean. ☎ 76 47 76 (gauzez).

Pisu bat alokairuan hartuko nuke. ☎ (94) 684 00 26.

Etxe amueblatua salgai Deban. ☎ 76 62 27.

Garajeak salgai Torrekuian eta Espoloian. ☎ 76 33 88.

Pisua salgai Soraluzen. 4 milioi. ☎ (94) 625 65 77.

DENETARIK

Pevey anplifikadorea salgai. ☎ 76 16 32.

Sony pletina bikoitza salgai. ☎ 76 05 38.

Donostian pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 46 03 98/76 25 59.

Nissan Vanette furgoneta salgai. Hiru urte, egoera onean. ☎ 76 58 94.

Donostian (Grosen) pisu bat osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 28 89.

Kawasaki Vulcan 500 motorra salgai. Egoera oso onean. ☎ 76 64 70.

Ford Orion (25.000 Km) eta Lada Niva (55.000) ko-txeak salgai. ☎ 76 39 93.

286 ordenagailua (40 mega) salgai. ☎ 76 49 29.

Macintosh ordenagailu berria salgai. ☎ 76 50 59.

Mendiko eskiak (1,80 m) erosiko nituzke. ☎ 76 05 38.

Irrati kontroleko abioia salgai. ☎ 76 51 94 (gauzez).

286 ordenagailua salgai, 40 mega. ☎ 76 58 81.

Vespa TX motorra (SS-AJ) salgai. ☎ 76 17 17.

Txakurrendako erre-molkea behar dut. Prezio onean. ☎ 76 56 05.

Bitrina frigorifikoa salgai. ☎ 76 23 42 (Noemi).

LANA

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 70 40.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 87 (Maribel).

Frantses klaseak. ☎ 76 27 16 (Estephanie).

Elosuko Elurmendi elkarte-
an garbiketak egiteko lagun bat behar da. ☎ 76 64 91.

Garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ 76 71 21.

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 47 67 (Nere).

Haurrak zaindu eta etxe-ko lanetarako neska behar da. ☎ 76 30 37.

Klinika auxiliar batek zaharrak edo helduak zainduko lituzke. ☎ 76 64 47.

Tituladun neska bat eskeintzen da edertze areto batean lan egiteko. ☎ 76 13 46.

Neska batek garbiketak egingo lituzke (orduka). ☎ 76 27 68 (Pili).

Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko neska behar da. ☎ 76 43 29.

Neska batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 40 85 (goizez).


Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

POL-POL
Taberna

☎ 76 07 78



ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

Gallastegi

Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak


San Pedro ☎ 76 10 85

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

BONOFOTOA



Jose Iturbe

Jose Iturbek jaso du oraingoan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen ziren baserrien izenak galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Bolu-berri eta Bolu Osintxu** ziren. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Jose Iturberi** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da Aita Santu baten izena duen plaza honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A Ze FLAXA ETXAGI	36	13	68	20
2. ERROTAGAIN	32	13	57	24
3. BAR CANALEJAS	29	13	44	30
4. JAUJA OH ZEREZOS	27	13	47	35
5. ORTZI	15	13	28	41
6. MONGATXURRA	13	13	35	47
7. AZPEITXI JATETXEA	13	13	40	45
8. OGIZUN	13	13	31	49
9. ARLOTEAK/OILAGORRA	13	13	55	36
10. BILDURBAREK OPEL/LAM	13	13	44	50
11. PAGOMENDI	12	13	30	47
12. UFALA	8	13	31	43
13. MADURA INDUSTRIAS GOI	5	13	28	35

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK BERGATRANS	27	13	71	39
2. UVE BIKOITZA JAM	25	14	40	43
3. ETXAGI	24	13	48	46
4. KAYAK OS JARDINEIROS	23	13	51	34
5. SOROPOTROAK	20	12	50	24
6. LA JUVE	20	14	53	36
7. HALTZARI	20	13	42	31
8. ERI	19	14	44	39
9. EZINLEIKE	19	14	42	56
10. AGIÑASPI	14	13	33	51
11. AGIRREBEÑA JATETXEA	12	13	31	38
12. INDARGORRI	11	13	17	28
13. AUTOBEREZI	10	14	37	64

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	36	14	48	22
2. FAC	30	14	60	31
3. PJS	26	13	34	28
4. NEKROFIKOS	25	14	41	45
5. TXIPIRON	21	13	38	29
6. NAHIKARI HOOLIGANS	17	13	51	42
7. JAMINA PATXARAN TEAM	16	13	46	36
8. EH BITERRAK	14	14	36	51
9. IGANDEKOAK	14	13	25	43
10. MOSKIS	12	13	38	25
11. CONSTRUCCIONES BERGARA	11	12	28	48
12. MRW	10	13	28	49
13. GANBARA	10	14	30	51

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	39	13	95	16
2. ARBE KIROLAK	34	13	75	29
3. ETENGABE	25	13	39	28
4. MATXAKATEGI	23	13	38	27
5. OSINTXU	22	13	47	30
6. SLO	22	13	49	50
7. XURRUPAK	21	13	31	44
8. KOMANDO PIPERRAK	16	13	46	59
9. AMILOTX	13	13	25	45
10. PANORAMIX	10	13	40	45
11. PATA NEGRA	9	12	28	63
12. POLIDEPORTIVO TABERNA	7	13	29	68
13. ALDOKA MALDOKA	5	13	28	49
14. PITIXAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Alberto Molinero

JAUJA OH ZEREZOS

ZER MODUZ TXAPELKETAN?

Oso ondo. Hobeto joan gaitezkeen.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Bakoitzak badaki zer egin behar duen eta indibidualitateak dira gauzarik onena. Txarrena 2. zatiaren hasierak.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Bai, protestatzeagatik.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Arratsaldez.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Orain A Ze Flaxa, baina Errotagaineke irabaziko du.

JOKALARIRIK ONENA?

Juan Luis Etxaniz.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

12 eta 1 Haltzariri,

ETA JASOTAKOAK?

8 eta 0 ez dakit noren aurka.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZU?

Txapelketa irabazteko aukera izatea espero dut.

LIGA PROFESIONALEKO

JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Carl Lewis edo Pele.

EUSKAL HERRIKOAK?

Indurain.

JATEKO PLATER BAT?

Langostinoak plantxan.

EMAITZAK

BAR CANALEJAS-PAGOMENDI	3-1
BILDURBAREK OPEL/LAM-MADURA INDUSTRIAS GOI	6-6
ERROTAGAIN-ARLOTEAK/OILAGORRA	3-2
AZPEITXI JATETXEA-JAUJA OH ZEREZOS	2-4
A ZE FLAXA ETXAGI-MONGATXURRA	5-2
UFALA-ORTZI	0-2
AGIÑASPI-AUTOBEREZI	1-2
ERI-EZINLEIKE	5-3
LA JUVE-UVE BIKOITZA JAM	1-2
INDARGORRI-HALTZARI	2-2
EH BITERRAK-GUADALEST	1-6
GANBARA-NEKROFIKOS	4-3
FAC-IGANDEKOAK	11-4

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: AMILOTX-POLIDEPORTIVO TABERNA • PATXARAN TEAM
10:00: MOSKIS-PATXARAN TEAM • AMILOTX
16:00: PATA NEGRA-ARBE KIROLAK • OGIZUN
17:00: PAGOMENDI-MONGATXURRA • OGIZUN
18:00: OGIZUN-UFALA • ARLOTEAK/OILAGORRA
19:00: A ZE FLAXA ETXAGI-ARLOTEAK/OILAGORRA • OGIZUN
20:00: BAR CANALEJAS-JAUJA OH ZEREZOS • OGIZUN

Zapatuan kanpoan

16:00: PJS-CONSTRUCCIONES BERGARA • NAHIKARI
17:00: MRW-NAHIKARI HOOLIGANS • C. BERGARA

Domekan barruan

09:00: TXIPIRON-IGANDEKOAK • EH BITERRAK
10:00: EH BITERRAK-NAHIKARI HOOLIGANS • TXIPIRON
11:00: ETENGABE-SLO • KOMANDO PIPERRAK
12:00: MANITOU-KOMANDO PIPERRAK • MATXAKATEGI
13:00: OSINTXU-MATXAKATEGI • MANITOU
16:00: NEKROFIKOS-FAC • ALDOKA MALDOKA
17:00: ALDOKA MALDOKA-PANORAMIX • MRW
18:00: MRW-PATXARAN TEAM • GANBARA
19:00: PJS-GANBARA • GUADALEST
20:00: GUADALEST-CONSTRUCCIONES BERGARA • PJS

Domekan kanpoan

12:00: AGIRREBEÑA-KAYAK OS JARDINEIROS • ORTZI
13:00: ERROTAGAIN-ORTZI • AGIRREBEÑA JATETXEA
16:00: SOROPOTROAK-HALTZARI • ARTUSAMAK
17:00: ARTUSAMAK-INDARGORRI • BILDURBAREK OPEL/LAM
18:00: AZPEITXI JATETXEA-BILDURBAREK • INDARGORRI

ESKOLA KIROLA

11:00: LTB-BLUE STAR
11:00: MP-INSTITUTUA
12:00: LOS TXISTIS-MIGUEL ALTUNA
12:00: MARIAREN LAGUNDIA-WALTER

KARTELDEGIA

FUTBOLA

- ◆ **Bergara-La Salle**
Ohorezko maila jubenilak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.
- ◆ **Bergara-UDA**
2. mailako jubenilak.
Zapatua. 15:30. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Arrasate**
Lehen mailako infantilak.
Domeka. 10:00. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Oiartzun**
Emakumezkoak.
Domeka. 11:30. Ipintza.

NESKEN 3. FUTBITO
TXAPELKETA

- ◆ **LTT-The Hurricanes**
Zapatua. 11:00. Miguel Altuna.
- ◆ **TK-Blue Star**
(Potzu ta Zapaburuak)
Zapatua. 16:00. Miguel Altuna.
- ◆ **Power Rantxeras-P.W.A.**
(Gu Geu)
Zapatua. 16:00. Miguel Altuna.
- ◆ **Potzu-Gu Geu**
Zapatua. 17:00. Miguel Altuna.

SASKIBALOA

- ◆ **Bergara-Tolosa**
Kadete mutilak.
Zapatua. 10:00.
Mariaren Lagundia.
- ◆ **Bergara-Santo Tomas**
Kadete neskek.
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Athletico SS**
Jubenil mutilak.
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

PILOTA

- ◆ **Bergara-Eskoriatza**
Deba Arroko Txapelketa.
Domeka. 10:30.
Udal Pilotalekua.
- ◆ **Bergara-Azpeitia**
Euskal Liga.
Domeka. 10:30.
Udal Pilotalekua.

Jaione Igartua

Gimnasia erritmikoan punta puntan

Jaione Igartuak, Ariznoa gimnasia erritmiko taldekoak, Estatuko bi txapelketa irabazi zituen joan zen ekainean Palma de Mallorcan. Hilabete lesionaturik darara eta berriz gimnasia egiten hasteko irrikitan dago.

- Noiz hasi zinen gimnasia erritmikoan?

- 5 urte nituenean (orain 12 urte ditu) lagunekin batera hasi nintzen. Poliki-poliki hasi ginen, jokoak eta horrelakoak egiten eta orain dela 4 urte taldekako txapelketetan hasi ginen.

- Zer lantzen duzue entrenamenduetan?

- Batez ere, flexibilitatea eta erremintak.

- Azkenaldian bidaia asko egin dituzue.

- Bai, eskolarteko Espainiako txapelketetan izan gara, Gijonen, Alicanten eta azkena Palman. Bertan, taldeka 2. postua lortu genuen eta bakarka, erreminta gabeko proban eta sokarekin lehen postua.

- Zein da erremintarik zailena?

- Zinta, oraindik ez baitugu oso ondo ikasi. Soka eta pilota erabiltzen ondo ikasi dugu eta orain mazak eta aroa ari gara lantzen. Soka da, berriz, gehien gustatzen zaidan erreminta, ondoen irtezen zaidalako.

- Ze lesio daukazu?

- Ez dakit, lunbarretan zerbait, baina medikuek ez didate esan zehazki ze lesio daukadan, ez diote igartzen, antza.

- Taldekideak entrenatzen ikusteak ez al dizu enbidiarik ematen?

- Ondo nagoenean eta entrenatzen ari naizenean kalean ibiltzea nahiago izaten dut, baina orain entrenatzen hasteko irrikitan nago.

- Ze txapelketa dituzu aurrerantzean?

- Orain arte eskolarteko txapelketetan ibili gara eta martxoan federatu mailako txapelketan hasiko gara. Lehenengo Euskadiko Liga jokatuko dugu eta gero, sailkatzen bagara, Euskadiko txapelketa.

- Kirol zailaren fama du gimnasia erritmikoak, egia al da hori?

- Bai, gauza asko behar dira: flexibilitatea, baldintza fisikoak, teknika, erritmoa...

- Zergatik joaten zarete makilatuta?

- Niri ez zait gustatzen makilatuta joatea, baina epai mahaikoek puntu gehiago ematen dute horrela joanez gero.

- Koreografiatarako ze musika mota gustatzen zaizu?

- Edozein musika, baina garrantzitsua da erritmoa ondo markatzen duen musika aukeratzea.



"Epai mahaiki gehiago baloratzen du makilatuta joatea".

"Baldintza fisikoak, flexibilitatea, teknika eta erritmoa behar dira"



Argazkia: Luis Larrañaga "Kikio"

1953ko kintoak orain dela 20 urte

Aste honetan kintada bateko argazkia ekarri dugu erretratu zaharrera. Bertan agertzen direnak 1953eko kintoak ditugu eta argazkia orain 20 bat urte aterata dago Bidekurutzetako aldapan, Lasa jatetxea lehen zegoen tokitik oso gertu. Ziur majo bazkalduko zutela egun hartan kintoek... Aurtan, argazkiko gehienek 65 urte egingo dituzte, jubilazio atarian ditugu beraz eta, argazkia ikusita, aitzaki ezinhobea daukate aurtan ere bildu eta lagunartean egun polita igarotzeko. Argazkian agertzen direnak hauek dira, ezkerretik eskumara:

Zutik: Joseba Linazisoro, Matias Izuskiza, Jose Antonio Arregi, Sebastian Agirre, Jose Kruz Iturbe, Josu Mujika apaiza, Esteban Arieteaniz "Uritxa", Felix Kruz Unamuno "Azpilleta", Luis Larrañaga "Kikio", Martin Alberdi, Jose Antonio Moñux, Juanito Muniategi, Vicente Calleja, Julio Askasibar, Txomin Gantxegi, Osoro, Antonio Iureta, Patxi Alberdi, Joakin Etxaniz, Juan Cruz Bengoa, Jose Goikoetxea eta Felix Unamuno.

Makurtuta: Donato Agirrebeña, Jose Sanz, Iñaki Gallastegi, Jose Padilla, Juanito Suinaga, Claudio Garcia, Bernardo Santamaria, Angel Larrañaga eta Fray Jacinto.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

A T E A K Z A B A L I K



Hautatu berria den Eskola Kontseiluak...

San Martin Herri Eskola

*bisitatzera gonbidatzen zaitu
otsailaren 22an
arratsaldeko 4etatik 8etara*



Zatozte eta ezagutu barrutik!!



SAN MARTIN AGIRRE

herri ikastetxea

Boni Laskurain, 25
Tel. 76 21 47

D eta B ereduak

d o a n

Simon Arrieta plaza, 2A behea ezkerre
tl. 76 71 19



I REKI BERRIA!

binan binan gosariak
pintxoak
bokatak *jango dituzu!*

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

**ALTZARIAK
DEKORAZIOA**

ARozTEGIA



San Juan, 1 (Barruti) • BERGARA • Telefona eta faxa: 76 54 91

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
48100 Bergara
94 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarteak.

Zuzendaria:

Agustín Azkarate

Erredakzioa:

Agustín Mendibil

Agustín Elkoroberezibar

Maketazioa:

Agustín Iturbe

Publizitatea:

Agustín Romero

Argazkideak:

Agustín Elortza

Testuen zuzenketak:

Agustín Plazaola

Agustín Laskurain

Agustín Labaien

Erredakzio kontseilua:

Agustín Elortza

Agustín Angel Elkoroberezibar

Agustín Labaien

Komikiak:

Agustín Rodríguez

Agustín Ortega & Jon Alvarez

Agustín Ugaldé

Agustín Azkarate

Maketaria:

Agustín Arriaga

Titulua:

Agustín ale.

Aprimategia:

Agustín Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

Agustín BERRIGARA

Lege gordailua:

Agustín 50/91

ISSN:

Agustín 1130-6599


BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

GURUTZ ARRIETA

Bergara Txirrindulari Elkartekoa

- Nolako partaidetza espero da aurtengo Gorrako Igoeran, martxoaren 9an?

- Azken ordurarte ez dugu jakiten, baina afizionatuen proban, 120 txirrindulari inguruk parte hartuko dutela espero dugu. Aurretik, ohizkoa denez, beteranoena jokatuko da eta bertan 40 bat partaide izango dira.

- Gorrako igoera lehen bezain ospetsua al da?

- Nik uste dut baietz. Eta hori frogatzeko datu bat emango dizuet: azken bost edizioetatik hirutan, federaziokoek antidopin kontrola egin dute Gorrak eta hori ez dute edozein probatan egiten. Afizionatuen mailan ospe handiko proba izaten jarraitzen du Gorrak.



- Zenbateko aurrekontua izango du aurtentzen?

- Ia milioi erdira helduko da. Udaleko Kirol Zerbitzuaren laguntza izan dugu eta horrez aparte, hainbat laguntzailereren kolaborazioa ere bai. Eta proba ikustera jotaten direnei 20 duroko sarrera kobratuko diegu. 23 urtetan mantendu dugu sarreraren prezioa.

"Afizionatuen mailan ospe handiko proba izaten jarraitzen du Gorrako igoerak"

I T U R R I O N E T I K

EHEk rock kontzertua iragarri du Bergaran martxoaren 15erako

Euskal Herrian Euskaraz taldeak manifestazioa antolatuko du Bergaran martxoaren 15ean arratsaldeko 5etan. Manifestazio-kalejira izango da eta bertan hankapaluek, antzerkilariek eta txalpartariak hartuko dute parte. Horrez gain, rock kontzertua izango da Jam aretoan arratsaldeko 7:30etarako aurrera. Durangoko azokan kaleratu zen EHEN diskoan parte hartu zuten talde batzuk izango dira: Latzen, Eskixu, Balerdi Balerdi, Deabruak Teilatueta eta Pi L T. Aurretik Niko eta Dominika Etxartek kantatuko dute eta Gasteizeko danborrero talde batek saioa eskainiko du.

E S A N
D U T E

"Dispertsio politikaren ondorioz, euskal presoek isolamendu egoera latzak jasan behar izaten dituzte, egonaldi luzeak inorekin komunikatzeko aukerarik gabe; dispertsioaren ondorioz presoek jipoiak jaso dituzte, etengabeko mehatxuak... Dispertsio politikak hamar euskal presoren heriotza ekarri du azken urteotan; bizi baldintza latz eta larriak jasan ezinik bere burua hil dutenak batzuk, eta behar bezalako atentzio medikurik gabe hil direnak beste batzuk. Senitartekoen ere hainbat istripu izan dituzte kartzelarik kartzela egin beharreko ibilaldi luzeetan; tartean bost hildako. Hori gutzia da dispertsio politika. Gerturatzeko politikaz hitzegiten dutenean, ordea, kilometroei buruz bakarrik hitzegiten dute. Non geratzen dira presoek dagozkien gainerako eskubide guztiak?"

KRISTINA
ELKORO

Senideak-eko kidea
KONTZEJUPETIK

**THE WONDERS**

Eguakitza: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**LA BUENA VIDA**

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

**SOBREVIVIR A PICASSO**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ **Tom Hanks** aktore ezagunak (*Forrest Gump*) idatzi eta zuzentzen duen lehen filme honetan *The Wonders* musika taldearen gorabeherak azaltzen zaizkigu. 1964ko udan, *The Wonders* taldeak izugarritzko arrakasta lortuko du eta taldea osatzen duten gazteek jira etengabe bati hasiera emango diote. Eurekin batera taldearen *managera* (**Hanks**) eta taldekide baten laguna (**Liv Tyler**) joango dira.

▼▼ Hainbat filmetan (*Amo tu cama rica*, *Two much*) gidoigile lanak bete ondoren, **David Trueba** (**Fernandoren** anaiak) gaztaroari buruzko filmea egin du. 15 urte bete berri dituen *Tristanek* (**Fernando Ramallo**) bakardadea, tristura eta bestelako sentimendu batzuk izango ditu gurasoen babesa uzterakoan...

▼▼ **James Ivory** zuzendariak **Picasso** pintore ospetsuaren inguruko filmea egin du, horretarako Malagako pintorea utzi zuen emakume bakarraren ikuspegian oinarrituz. 1943. urtean elkar ezagutu ondoren, bion arteko erlazioa ez da batera erreza izango pintoreak (**Anthony Hopkins**) atzean lagatako emakumeekin elkartzeko jarraitzen duelako...

Deiak

▼ **Matinala.** *Alaska* filmea domekan 11:30etan Novedades aretoan.

▼ **Odol ateraldia.** Bergarako Odol Emaleen Elkartek dei egiten du eguastenean 18:30etan Seminarioko baxuetan egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

▼ **Rikardo Azkargorta**ren mar-go erakusketa Madrileko La Kabala erakustokian (Conde de Aranda, 10) martxoaren 8ra arte.

▼ **Hilario Azkargorta**ren argazki erakusketa Nahikarín.

▼ **Jam aretoa.** *Quality festa* bihar zapatua gaueko 12etatik aurrera. Nacho Division eta Carol Berkeley DJekin.

Ogia

▼ **Domeka 2:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 28:** Guallar.
- ▼ **Zapatua 1:** Estella.
- ▼ **Domeka 2:** Estella.
- ▼ **Astelehena 3:** Mozos.
- ▼ **Martitzena 4:** Camacho.
- ▼ **Eguaztena 5:** Puy.
- ▼ **Eguena 6:** Guallar.

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak

GORBEA

Miguel
Gimbert
Hernan

AROTEGIA / EBANISTERIA

Zokalo, ate, tarima eta armairuen
kolokazioa eta
era guztietako arotzeria-lanak

Orain ARETXABALETAN,
Basabe Polig. A-2-5 T/F 79 15 71

Hilario Azkargorta

Argazkilari bergararraren erakusketa Nahikarin

Argazkizale amorratua, Hilario Azkargorta ia urte osoan ikus dezakegu herriko ekitaldi gehienetan erretratuak ateratzen. Duela 12 bat urtetik Pol-Pol Argazki Taldeko kidea da eta astelehenero biltzen dira Zabalotegiko lokaletan. Hilarioen lehendabiziko erakusketa ikusgai izango da Nahikari tabernan martxoaren bukaerara arte.



Hilario Azkargorta Pol-Pol Argazki Taldeko kidea da.

- Nolako lanak ekarri dituzu Nahikarira?

- Denera 21 argazki dira, goma bikromatada ize-neko teknikaz eginak. Orain dela zazpi bat urte teknika honen ikastaro bat egin nuen eta ordutik probak egin izan ditut. Baina duela urtebete serioago ekin nion erakusketa hau antolatzeke asmoz eta lan horren emaitza erakutsi nahi izan dut.

- Zertan datza teknika hori?

- XIX. mendeko teknika bat da eta berezitasunetako bat emulsioarena da: goma arabiga, dikromato potasiko eta urarekin egiten da; negatiboa egin eta gero, berriz, kontaktok ateratzen da eta

errebelatua urarekin egiten dut. Kontraste gutxiko argazkiak ateratzen dira horrela, dibujo modukoak dira.

- Erakusketako lan gehienak erretratuak dira...

- Bai, teknika honek definizio gutxi ematen duenez, argazkiak argiak izan behar dira. Paisaia batean, adibidez, ez litza-

teke asko ikusiko, detaile gutxi ematen duelako.

- Non ateratako argazkiak dira?

- Denetik dago. Errusian ateratakoak, Irlandan, Britainan, Bergaran bertan... Kanpora joaten naizen bakoitzean beti aprobeztatzen dut argazki mordo bat ateratzeko.

- Teknika honekin jarraitzeke asmorik?

- Bai, badaukat asmoa teknika hau lantzen jarraitzeke. Gainera ez da asko erabiltzen eta nahiko lan orijinalak lortzen dira.

- Nolako argazkiak ateratzea gustatzen zaizu?

- Gehienbat kirol argazkiak ateratzen ibiltzen naiz, diapositiban gehienak, zuribeltza ez dut hainbeste erabiltzen. Eta ia urte guztian ibiltzen naiz kamararekin. Zenbat argazki? Ez dakit, segun... Guztira, batz bestea 40 karrete aterako ditut urtero.

- Konkursotan parte hartzeke ohiturarik baduzu?

- Konkursotan ez hainbeste, nahiago dut argazki rallyetan parte hartzea.

- Eta zeintzuk dira gehien gustatzen zaizkizun argazkilariak?

- Betidanik fijatu izan naiz Sebastiao salgadoren lanetan. Cartier Bressonek ere oso lan politak dauka, Robert Cappak ere bai... asko dira. Oraingorak, berriz, ez ditut hainbeste ezagutzen.

“Gehienbat kirol argazkiak ateratzen ditut, eta diapositibak izaten dira gehienetan; zuribeltza ez dut hainbeste erabiltzen”



PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK

• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK

• ERROTULOAK

Aranerrea, 32 behea BERGARA. Telefona eta faxa: 76 11 40

Hain santua izan ote zen?

Santu ona da San Martin Aseziokoa. Urtean jaiegun bat ematen digu eta gure artistak inspiratzen ditu ikuskizun bikainak sortzeko. Ez dago gehiago eskatzerik. Baina mendeurrenak ondo etortzen dira gogoeta puxka bat egiteko ere, eta horretan saiatuko naiz, jakinda denok ez gara iritzi berekoak izango.

Goazen XVI. mendera, San Martinen garaira. Mende honetan Espainiak (Portugal eta Ingalaterrak ere bai, nahiz eta neurri txikiagoan) Ameriketara konkistatu, "zibilizatu" eta "kristautu" zuen; beste berba batzuetan esanda: birrindu, lapurtu eta bataiatu zuen. Askoren iritzi, historiako genozidiorik handiena gertatu zen orduan. Milioiak izan ziren kultura eta fede berdaderoaren izenean beste mundura bidaliitakoak gure arma eta gaixotasun santuei esker. Kuban, datu bat ematearren, miloi bat inguru izango ziren bertakoak 1510ean, espagnolak isla konkistatzen hasi zirenean, eta 1570ean jatorrizko 1.000 lagun besterik ez zen geratzen; beste leku batzuetan ere berdintsu, nahiz eta mendiei eta oihanei esker indiar gehiago salbatu ahal izan zen. Inka, maia, azteka eta abarrei odolgorria eta urregorria, dena kendu zitzairen. Esaten da Moctezuma-k, azteken buruzagiak, besozabalik hartu zituela espainiarrak, lagunak eta ongileak zirelakoan. Ez zuten deskuidu makala izan haren azkiek! Konturatu zireneko berandu zen. Jota txikitu egin zituzten. Ameriketara soldaduak joaten ziren aurretik eta apaizak atzetik, oraindik lepoa buru gainean zuen guztia kristautuz.

XVI. mendea emankorra izan zen Espainiarrentzat: Ameriketara gehiena, Nafarroa, Italia erdia, Flandes, Filipinak... eguzkia ez omen zen ezkutatzen gure Imperioan... Baina inperioen gosea aseezina izan ohi da. Eta oraindik bazeuden Asiako ekialdean mokau goxo askoak. Filipinak ez ziren zubi txarra Japonera pasatzeko. Ai, baina japoniarrak gerrarako ondo prestatuak zeu-

den; han ez zituzten gure soldaduak musikarekin eta larrosekin hartuko; eta inperioaren estrategek misiolariak bidali zituzten aurretik. Hona zer dion Joxe Azurmendi idazle eta filosofoak, Japon-go gaietan aditua den Georg Evers alemanaren hitzak ekarriz: "La experiencia con españoles y portugueses fué mala para los japoneses. Vieron cómo primero aparecía el misionero, pronto seguía el comerciante, y tras ellos llegaba al puerto el barco con hombres armados que llegaban a tierra con aire de conquistadores. Los japoneses sintieron amenazada su personalidad y su independencia: a mediados del siglo XVII acabaron cerrando los puertos herméticamente a todo extranjero y tratando de borrar toda influencia europea ya introducida, fuera ésta religiosa o cultural. (En Gipuzkoa tenemos un santo muerto en esos conflictos, San Martín...). Durante más de doscientos años Japón vivió en el aislamiento y encerrada en sí misma".

Ehun urtez ibili ziren misiolari kristauak Japonen zehar. Eta ez dirudi apaiz lanetara mugatzen zirenik. Migel Angel Elkoroberezibar-en liburu interesgarrian ikus dezakegunez, anai Martin-ek Felipe II.ari gutuna idatzi zion esanez Japonen agintari kristauak ezartzea komeni zela, eta horretarako Manilatik gerrariak ekarri behar zirela, hauen laguntzaz, kristaututako jauntxo japoniarrak matxinatu eta boterea hartzeko. Egia dirudi misiolariari egin zitzairen salaketa: konkistarako lurra prestatzen ari zirela. Lehengo gutunak Martinen mentalitate inperiozalea adierazten duen bezala, ondorengo esaldiak haren itxueria erlijio-soa: "Y en la ciudad de Meaco tiene el demonio diez y ocho mil Bonzos o sacerdotes de dos mil templos, donde es adorado". Deabruaren atzaparretan zeuden, jakina, katoliko ez ziren guztiak. Eta deabruaren kontra dena da libre.

Beasainen argitaratu den liburu-komiki baten arabera, San Martin lehenengo kooperantea, ONG-ak sortu baino 400 urte lehenagokoa, omen da. Bejondaiela.

Garbi dagoena da japoniarrak oso tolerantetarako zirela erlijio kontuetan. Budismoak edo sinitismoak ez zuten kristautasuna etsai bezala ikusten, eta misiolariak ondo hartuak izan ziren, hasieran behintzat. Orain imajinatu zenbat denpora irauango zuen misiolari budista batek, orduan Espainietara etorri izan balitz. Hamar minutu? Sasoi hartan, bataiatu nahi izan ez zuten judutar eta musulman guztiak -ehundaka milaka- estadtutik kanpora bota zituzten, ehundaka "sorgin" eta "hereje" sutan erre; eta hauen artean gizon eta emakume euskaldun asko. Pertsekuzio politiko odoltsua burutu zen gure herriaren kontra, Nafarroan eta Lapurdin batez ere, sorgin-ehiza aitzakiatzat hartuta. Inkisizinoia jaun eta jabe zen.

Ez dut honekin inoren sentimenturik mindu nahi, baina uste dut hainbeste zapalketa sufritu duen gure herriak -ideologia eta estatu berberaren eskutik, gainera- eredu hobekak merezi dituela, eta baita historiaren interpretazio kritikoagoak ere.

JUAN MARTIN ELEXPURU

Tiira biraka



Txorimaloak

Martxoaren 19an amaituko da Jarduneko Gazte Taldeak Erramu Zapaturako antolatatu duen Txorimalo. Lehiaketara aurkezteko epea. Izen-ematea Gartzela Zaharrean egin behar da.

Bideo ikastaroa

Islada bideo gelak argiztapen ikastaroa antolatuko du martxoaren 17tik 26ra bitartean. Klase teorikoak eta praktikoak emango (40 ordu) eta astean zehar emango da. Izena emateko epea martxoaren 12an bukatuko da. Argibideak 77 91 58 telefonoan.

Txokolatada

Txokolatada antolatu da datorren egunerako, Ollagorra elkartean 16:30etan. EPA Zentroak eta Udaleko Gizarte Zerbitzuak urtean zehar antolatutako jardueretan parte hartu duten emakumeak daude gonbidatuta.



Moiua Dorrearen behealdean eraikiko dira txaletak. Obrak udan hasiko dira.

Hogei etxebizitza unifamiliar eraikiko dira Madura inguruan

Madura eta Mugertza gainaren eta Goiko Estazioaren artean, Moiu Dorrearen inguruan, egingo diren etxebizitza familiar bakarren proiektuari oniritzia eman dio Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ruweiba S.L. enpresak bultzatutako proiektuan 20 etxebizitza eraikitzea aurrirakusten da: 9 bifamiliar eta beste bi unifamiliar.

Etxe bakoitzak hiru solairu izango ditu: beheko solairua, lehenengoa eta sotoa. 250 metro karratu inguruko etxebizitzak izango dira eta etxe bakoitzak 650 metroko partzelatxoa izango du.

Erabat itxuraldatuko den inguruak 19.000 metro karratuko azalera izango du, erdian Moiu Dorrea geratuko da eta Moiu Azpikoa baserria bota egingo da. San Lorentzoko etxeen atzealdean eta etxe berrien azpian, ostera, 2.500 metro karratu inguruko parkea egingo da. Esan bezala, Moiu Dorrea etxe berrien erdian geratuko da. Maduratik Goiko Estazioa joateko dagoen bidetik alde bietara eraikiko dira etxeak. Goiko Estazioa doan bidetik eskumatara (Mugertza gainaren eta trenbidearen artean), bost

etxebizitza bifamiliar eta unifamiliar bat eraikiko dira eta ezkerretara, (San Lorentzoko etxeen eta Zentral Hidroelektrikoaren artean dagoen lursailan), berriz, 4 bifamiliar eta unifamiliar bat.

Arau Subsidiarioetan jasotzen denez, Bergaran era honetako etxebizitzak egiteko leku bakarra da hau. Proiektua orain dela bederatzi urte hasi zen lantzen eta Diputazioaren eta Udalaren oniritzia jaso ondoren, uda honetan hasiko dira obrak. Eskiera asko jaso dira orain arte, baina oraindik ez da etxerik saldu.

HILDAKOAK

Gines De Dios Casas
Otsailak 24, 71 urte.

JAIOTAKOAK

Nora Casquero Oiarzabal
Otsailak 15.
Liem Quesada Maniaga
Otsailak 18.
Julen Rodriguez Garcia
Otsailak 25.

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79



BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxe: 76 04 77

Jardunaldi pedagogikoak

San Martin ikastetxe publikoak antolatu dituen jardunaldi pedagogikoen barruan datorren asteazkenean, "Eleaniztasuna eta eredu linguistikoak" aztertuko ditu Iosu Sierrak, Hezkuntza Saileko teknikariak. Hitzaldia arratsaldeko 7etan Kultur Etxean izango da.

Sagardotegi eguna

Artatse Elkarateak sagordegi eguna antolatu du zapatu honetan Artatsen. 20:30etan zabalduko da eta herri afarirako menu berezia izango da. Txartelak Arranon, Pol-Polen eta Kortazarren salgai daude 2.000 pezetaren truke (1.700 ikasle eta langabetuentzat).

Memini omenaldia


Iñigo Martinez "Memin" zenaren omenez, Irukurutzetako mendi irteera antolatu dute bere lagunek zaturako. Egun guztirako izango da eta eta bazkaltzeko bokadiloa norberak eraman beharko du. Irteera goizeko 8etarako iragarri da San Martin plazatik.

Bertso afaria Osintxun

Zapatu honetan gaueko 9etan, Jon Sarasua eta Xabier Euskitzerekin bertso afaria izango da Osintxuko Txuringo jatetxean. Afarirako txartelak 2.500 pezetan eskura daitezke jatetxean bertan.

Ikaslegaiantzat prestakuntza

Glotodidaktika ikastaroa antolatu du Gipuzkoako AEKk ikasturte honetako hirugarren hiru hilabeterako. Ikastaroa 100 ordu teoriko-praktikoz osatuko da. Interesatuak telefonoa hauetara deitu dezakete: 76 05 18 / 47 19 35.



Zerrajerako kanala zena aprobetxatu du Gurutze Gorriak, bainua hartzeko potzua egiteko.

Elorregiko pizina bota egin beharko du Gurutze Gorriak

Baimenik barik egin duela adierazi dio Udalak

Gurutze Gorriak Elorregin Udalaren baimenik barik eraikitako pizina ez legezatzeta eta, beraz, pizina eta bere ingurua obrak egin aurretik zegoen moduan lagatzea eskatu dio Bergarako Udalak Gurutze Gorriari. Lan horiek Udalak esandako moduan egin beharko dira eta martxoaren erdialderako bukatu egin beharko dira. Gurutze Gorriak epe horretarako obrak egingo ez balitu, Udalak ekingo lioke obrei eta gastuak Gurutze Gorriaren kontura izango lirakeke.

Gogoratuko duzuen bezala, Udalak espedientea ireki zion joan zen abenduan Gurutze Gorriari Elorregiko postuan pizina baimenik barik egiteagatik; Arau Subsidiarioetan jasotzen denez, bertan ezin

delako horrelako eraikuntzarik egin. Mikel Garagorrik, Elorregiko Gurutze Gorriko arduradunak, Berrigarari adierazi dioenez, "ez dugu pizinarik egin, baizik eta Zerrajerako lehenengo kanala aprobetxatu, urez bete eta eskilaratxo batzuk jarri ditugu. Beraz, lehenengo kanala egokitu besterik ez dugu egin eta ez da obrarik egin. Bestalde, Udalari baimenik eskatu ez badiogu, dirurik ez daukagulako izan da. Gure asmoa, bertan lanean dibarduten boluntarioei uda partean bainua hartzeko aukera eskaintzea da".

Pizinak 10 x 2 metro inguruko neurria eta hiru bat metroko sakonera du, eskilaratxo bat du eta gaur egun utsik dago.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA

Ibabe eta Etxaniz

Gestorek eta Senideak-ek deitutako manifestazio ixilean 300 bat lagun bildu ziren ostiral iluntzean. Etxaniz eta Ibabe presoek 17 urte betetzen dituztela gartzelan eta dagoeneko kalean egon beharko lirakeela salatzeke antolatu zen manifestazioa. Bestalde, HBko zazpi zinegotziek itxialdia egin zuten ostiral gauean Udaletxean. Berrigarara bidalitako idatzi batean azaltzen denez, *“benetako arrazoiei heldu barik, azalkeriatan geldituz, pake-bidea baztertzen ari direnak*

normaltasunik gabeko egoera batera eroan gaituztelako, aurrera ere gure lana herriaren sufrimendua luzatzen ari direnen jokaera salatu eta Alternatiba Demokratikoa zabaltzea izango da”. Zapatu eguerdian irten eta “Alternatiba demokratikoa” banatu zuten San Martin plazan. Eguastenean, berriz, Joxe Migel Azurmendik, 18 urtez preso egondakoak, eta Txema Matanzosek, Gestoretako kideak, Askatasun kondizionalari buruzko hitzaldia eman zuten Miguel Altuna ikastetxean.



Herritarren foroak. Joan zen ostegunean ekin zitzaaien berriz ere Elkarrik antolatutako herritarren foroi. Egueneko ekitaldian Sabino Aiestaran Euskal Herriko Unibertsitateko soziologo katedradunak, Javier Elzoren taldean aritutakoak, kale borrokari buruz jardun zuen. Sabino Aiestaranen hitzaldiaren ondoren, bildutako 22 herritarren arteko eztabaida izan zen. Iaz bezala, aurten ere iritzi ezberdineko herritarrak bilduko dira herritarren foroetan, Euskal Herrian bizi den gatazka politikoari irtebideak aurkitu nahian.

Gobernuaren salaketa

Udaleko Gobernu Batzordeak salatu egin ditu azkenengo Ezohizko Osoko Bilkuran, HBko Mahai Nazionaleko kideen atxilotetari buruzko mozioa aztertu zenean izan ziren istiluak, gobernu

taldeko zinegotzien kontrako irainak eta arraultzak botatzea. HBko zinegotziak egin ditu istilu horien erantzule, *“HBko zinegotziek pankarta bat zabaldu zutelako ikusleen aurrean, arraultzak botatzen zituztenak babestu eta estaltzeko”*.

Caritasen oharra

Bergarako Caritasen arropategi zerbitzuak jakinarazi nahi du, martxotik aurrera bere eginkizunak eten egingo dituela, Goenkale 2an duen egoitza laga egin behar duelako. Toki berria prestatzen denean berehala jakinaraziko da.

INEMen bulegoa

Astehenean zabalduko da berriz ere INEMeko Arrasateko bulegoa. Tren estazio zaharrean kokatuko da bulego berria, eritexea dagoen ondoan.

Batzokiko saskia

Bergarako Eusko Alderdi Jeltzaleak antolatutako Gabon zozketan lehen sariaren irabazlea agertu ez denez, Mizpirualde egoitzari eman zaio sariaren balioa dirutan.

EHE-en zozketa

Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatutako zozketan, 415 zenbakia saritua irten da. Txartelaren jabeak 76 44 27 telefono zenbakira deitu dezake saria jasotzeko.

Eskulan erakusketa

Jarduneko emakume taldekoek eskulan erakusketa egingo dute datorren eguastenetik (martxoak) aurrera Kultur Etxean.

Zikloturisten irteera

Urteko lehenengo zikloturista irteera iragarri da domeka honetarako. Irteera goizeko 9:15etan egingo da San Martin plazan eta Dorletako amari lora eskaintza egin ondoren, Marietan luntxa izango da. Guztira 75 kilometro beteko dira.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.

Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

ezpeleta

ostalaritza-ehunak

OSTALARITZA ETA EGOITZETARAKO MAHAI-ZAPI
ETA INDUSTRI-EHUNAK

SAN LORENZO, 1 TL. 76 17 09

Sagardotegi eguna



ARTATSE ELKARTEAN

1997ko Martxoaren 1ean

Herri afariko menua:

Trikitilariek alaitua

- Bakailau tortila • Txuleta • Intxaurrak • Sagardoa txotxetik •

Prezioa: 2.000 pta. 1.700 pta. ikasle eta langabetuek

Gaueko 8:30etatik aurrera irekita

Txartelak salgai Arranon, Pol-Polen eta Kortazarren

Zuzendaritza batzordea berretsi zuen asteartean jubilatuen batzar orokorrak

San Joxepe Elkartearen arduratuko da Jubilatuen egoitzaz

Eratu berri den San Joxepe jubilatuen eta pentsiadunen elkarteak batzar orokorra egin zuen joan zen asteartean jubilatuen egoitzan. Areto nagusia lepo zegoela, zuzendaritza batzordeak mahai-gaineratutako puntu guztiak onartu ziren eta zuzendaritza batzordea berretsi egin zuen batzarra.

Bost puntu aztertu ziren. Alde batetik, San Joxepe elkartearen estatu-tuen berri eman eta onartu egin ziren. Bestetik, 1.000 pezetako urteko bazkide kuotari oniritzia eman zitzaion. Hirugarrenenez, iazko diru kontuak eta aurtengo aurrekontua onartu ziren eta iaz antolatutako jardueri errepa-soa egin ondoren, 1997ra-ko prestatu diren jardueren berri eman zen. Azkenik, aipatu bezala, zuzendaritza batzordea berretsi egin zen.

Batzarrean parte hartu zuen 300 lagun ingururi aurten antolatuko diren jardueren egitaraua eta jubilatuen egoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak jasotzen dituen foilettoa banatu zitzaion. Bertan, urtean zehar antolatuko diren ikastaro, bidai eta beste era batzuetako jarduerak hilez-hil zehazten dira. Batzarrean, urtean zehar antolatuko den kultur astearen berri ere eman zen eta antolaketan parte hartzeko deia zabaldu zen. Tomasa Zabaleta el-



Martitzenean egin zen San Joxepe elkartearen batzar orokorra.

karteko presidentek Berrigarari azaldu dionez, "aurrerantzean geuk antolatu eta jestionatuko ditugu jarduera guztiak eta ez Diputazioak orain arte egin duen moduan. Udalak eta Foru Aldundiak dirulaguntzak emango dizkigu, baina geuk antolatuko ditugu jarduerak".

Bestalde, iazko urrian sortu zen San Joxepe elkarteak orain arte izan duen bilakaeraren berri eman zen. Gabonetan 750 bazkide zituen elkarteak eta gaur egun 900 inguru dira. Martitzeneko batzarrearen ondoren, beste 20 bat lagunek eman dute izena. Iazko Gabonetan bazkide ziren 750 lagun-neren ikerketa bat egin zen, sexu eta adinaren arabera. Ikerketa horren emaitzak aldameneko taulan ikus ditzakezue. Bestalde,

jaiolekuari dagokionez, gehienak Bergaran jaiotakoak dira (391).

Eguneko zentroa

Batzarrean Victoriano Gallastegi alkateak ere

parte hartu zuen eta uda inguruan zabalduko den eguneko zentruaren berri eman zuen. Alkateak aipatu zuenez, Aste Santu ostean hasiko dira obrak eta uztail ingururako bukatuko dira.

SAN JOXEPEKO BAZKIDEAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

EADADEKA	SEXUAREN ARABERA		GUZTIRA	%
	GIZONAK	EMAKUMEAK		
46-50	1	3	4	
51-55	4	10	14	
56-60	17	37	54	
61-65	92	93	185	256 (%34)
66-70	105	111	216	
71-75	73	77	150	366 (%49)
76-82	36	45	81	
81-85	18	20	38	
86-90	1	7	8	129 (%17)
91-95	-	2	2	
GUZTIRA:	347	405	752	

Osasuna

Osteoporosia**- Zertan datza osteoporosia?**

- Hezuraren masa oseo a galtzea litzateke. Gaztetan hezurak gogor eta erresistenteak izaten ditugu baina behin edate batera heltzean, zahartzaro edo menopausia arazoengatik, hezurak makalago, ahulago daude eta hezurak apurtzeko arriskua haundiago da.

Azken urteetan osteoporosiarenganako sentibilizazio haundia eman da eta orokorrean desinformatzio asko dago, jendak ez dak, zehatz mehatz osteoporosia zer den eta nola tratatu daitekeen.

- Zein da osteoporosiaren inzidentzia?

- 75 urtetik gorako jendearen artean, erdiak osteoporosia izaten du eta kontutan izanik biztanlegoa gero eta zaharragoa dela kopuru nahiko altua da. Era berean, menopausia duten emakumeen artean %40ari afektatzen dio osteoporosiak. Emakumeen artean kasu gehiago izaten dira, gizonezkoetan zailagoa da.

- Eta zein izaten da osteoporosiaren jatorria?

- Faktore genetikoen, haurtzaroan egin izan dugun kirolak eta dietak berak (haurtzaroan egunero 1-1,5 gr. kaltzio egunean hartzea komeni da) erabateko eragina daukate hezurren formazioan. Prebentzioa, beraz, ezinbestekoa da eta arrisku faktoreen artean tabakoa,

**CARMEN MORAGUES***(Reumatologoa)*

alkohola eta kafeina aipa daitezke. 35 urtetik aurrera hezuraren dentsitateak behera egiten du eta menopausiaren ondorioz ere, hormonon faltagatik, dentsitatea oseo izugarri jeisten da.

- Zelan diagnostikatzeko da osteoporosia?**“Inzidentziari dagokionez, 75 urtetik gorakoen artean, erdiak osteoporosia izaten du”**

Densitometria erabiltzen da osteoporosia diagnostikatzeko.

- Densitometria, hezuraren dentsitatea neurtzeko makina batekin egiten da. Radiografiak ez du balio izaten kasu honetan eta densitometriak gainera erradiografiak baino 20 aldiz gutxiago erradiatzen du. Makina honek zehazten du hezurak apurtzeko arriskuan (fraktura mailaren gainetik ala behetik) zauden ala ez.

- Behin diagnostikatu ondoren, zein da jarraitu beharreko tratamendua?

- Egunean kaltzio gramoa bat hartzea (100 gr. gazta eta 3 baso esne), kirola modu suabea egin (ibili batez ere) eta eguzkia hartzea (D bitaminarengatik) ondo etorriko da. Esnearen kasuan, esan behar da esne gaingabetuak normalaren beste kopu kaltzioa daukala.

Horrez gain, esfortzu haundirik egitea ez da komeni. Emakume menopausikoei, berriz, hormonak (estrojenoak) aginduko zaizkie eta bestelako kasuetan kaltzio eta D bitaminaren gehigarriak eta bifosfonatoak eta calcitonina (zalantzak dauden arren egokienak omen dira). Tratamendua luzea izaten dela esan behar da baina pazientearen hobekuntza lortzen da.

Osteoporosiak ez du sintomarik izaten eta onena arrisku faktoreak kontutan izanda, kontrol bat eramatea izaten da.



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming Dokorea, 5
☎ 76 19 94

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Arte ferian

Manu Muniategiandikoetxea



Manu Muniategiandikoetxea bigarren aldiz izan da aurten ARCO ferian, emaitza ezinhobearekin; bost koadro saldu ditu.

Manu Muniategiandikoetxea margolari bergararren lanak harrera oso ona izan du Madri- len ospatu berri den ARCO Arte Garaikidearen Ferian. Bertan, 1.000 artista eta 300 bat galeria bildu dira eta Manuk horien artean nabarmen- tzea lortu du, kritika zein publikoaren oniritzia jasoz. Orain berriz ere lanari ekingo dio, laister Basaurin eta Tolosan egingo dituen erakusketak gertatzeko.

- Nola izan zenuen zure lana ARCO n erakusteko aukera?

- Orain dela bi urte Lurdes Fernandez DVko galeristak Artelekun nire lana ezagutu eta DV Galerian erakusketa bat egiteko aukera izan nuen.

Eta hortik etorri zen ARCOra joateko aukera. Iaz ere ARCO n izan nintzen galeria berdinarekin baina orduan Cristina Iglesias, Chillida, Nagel edo Scully izan ziren galeriako ordezkariak eta besteon lana katalogotan era-

kutsi zuten. Aurten, ber- ritz, Chillida kenduta, iaz- koekin nire azken lanak erakusteko deitu zidaten eta zortzi lagun izan gara DV galeriarekin. Eta gau- zak oso ondo joan dira. Danera, bost koadro sal- du ditut: Coca-Cola Fun-

“Oso pozik nago, pintore izateko saltzea ezinbesteko delako. Horrek aurrera egiteko konfiantza ematen dit”

“ARCOk feria komertzial baten bidea hartu du, feria komertzial hutsa da”



dazioari bat, Arabako Arte Ederretako museoari beste bat eta beste hirurak partikularrei.

- Euskal artisten artean arrakastatsuenetakoa izan zara...

- Bueno, egunkari eta komunikabideetan oihartzun handia eman diot nik saldutakoari baina ez da hainbestera izan... Egia da, oso azkar saldu nituela eramandako koadroak. Eta garraiolarien grebak nahiko kalte egin zigun, ezin izan baikenuen lan gehiago eraman. Baina, bai, jendea asko berotzen da horrelako ferietan eta behin koadro bat saldua kataia moduko bat gertatu zen. Oso pozik nago, pintore izateko saltzea ezinbestekoa da eta gainera, kritikoez gain, partikularrak ere nire lanarekin interesatu dira.

- Non amaituko dute saldutako koadro horiek?

- Ez dira pareta batean eskegita egoteko. Ziurrenik biltegi batean gordeko dituzte eta erakusketa-aren baterako aterako dituzte, saltzeko..., edozein kolektorekin gertatzen den moduan.

- Zer iruditu zaizu ARCO?

- Lehen, sekula ez nintzatekeela joango esaten nuen baina argi dago pinturatik bizi ahal izateko saldu egin behar dela eta horretarako dago ARCO, feria komertzial hutsa da. Eta argi dago zure lana saltzeak aurrera egiteko konfiantza ematen dizula. Hemen ez dago Alemaniako edo Estatu Batuetan artea erosteko dagoen ohituririk, nagusiki instituzioak dira artea erosten

durenak hemen. Baina aurten, dirudienez, asko saldu da ARCON, salmentek gora egin dute aurreko urteekin konparatuz; dena den, normala denez, ez da denentzako berdina izan.

Pintura modan

- Eta zer nabarmenduko zenuke ARCOtik?

- Aurten gehien harritu nauena gauza asko desagertu direla izan da; instalazioak, eskultura gutxi izan da baita... eta, aldiz, pintura eta fotografia asko ikusi da. Lehen, gu pintatzen hasi ginenean, pintura hilda zegoela esaten ziguten eta orain, Estatu Batuen eraginez, beharbada, berriz ere pintura indarrez datorrela ematen du eta pinturaren barruan pintura figuratiboa

izan da nagusi. Azken batean, artearen barruan ere modak daude...

Bestalde, ARCOk feria komertzial baten bidea hartu duela esango nuke. Lehen, alde batetik, joera berriak, artista gazteen lanak erakusten ziren, momentuan zer egiten ari ziren erakusteko eta, bestetik, saltzeko zegoena ere bai, komertzialagoa zena. Orain, batipat, ARCO saltzeko egiten dela esango nuke, jendea saltzera doa bertara.

- Nola definituko zenuke zure estiloa?

- Nekeza izaten da norberaren estiloa definitzea. Bi koloretan egindako lanak dira, ia monokromoak eta fondo baten gainean estruktura simple bat lantzen dut. Estruktura hori dibujo bat izaten da, errez irakur daiteke

koadroan zer dagoen. Eta materialen aldetik, berriz, ez naiz oso sofistikatua, akriliko erabiltzen dut egurra edo oihalaren gainean. Materiala industrialak erabiltzen dut gehiengatik.

- Noiz pintatzen duzu? Nola lantzen dituzu ideiak?

- Egutero, goiz eta arratsaldean margotzen dut normalean, Donostian baldin banago behintzat. Hamahiru lagun ari gara Igarako pabilioi batetan lanean. Metodoa? Bakoi-tzak berea dauka; ni irudiak batzen ibiltzen naiz, beste pintore batzuen lanak, eskulturak, fotografia-kiak, publizitatea, moda... Informazioa eta beste artisten lanak beharrezkoak ikusten ditut. Normalean, bizpahiru artistaren lanak hartu eta horretan fijaszen naiz, ondoren paperean koadro txikiak egiten ditut, ideia fijo barik, eta hortik ideien eurijasa hasten da gauzak sinplifikatzen diren arte. Oso sinpleak eta oso errezak ematen duten gauzak egiten saiatzen naiz eta zaila izaten da askotan barruan duten lana eta estruktura apreziatzea, horregatik jende askori errezak iruditzen zaizkio. Baina artista askorekin gertatzen den gauza da: Atxagaren idazkerak, adibidez, oso erreza eta oso sinplea dela ematen badu ere sekulara lana du atzetik. Eta hori lortzea ez da batere erreza izaten.

- Teknologia berri-rik erabiltzen al duzu?

- Beste erraminta bat bezala ikusten dut ordenadorea, argazki makina bezala. Orain zortzi urte ordenadore kurtsillo bat egin nuen eta ordutik nabil ordenadorea erosteko ideiarekin.

Erreferentziak

- Pintatzerako orduan zeintzuk dira zure erreferenteak?


- Orain Shapiroren gauzekin ari naiz lanean. Baina horrez aparte asko dira: Bruce Nauman eta Paul Macarthy eskultoreak, Mather Warney bideo-gilea, Popova pintorea, Eames arkitektoa...

- Eta euskaldunen artean?

- Txomin Badiola eta Moraza eskultoreak asko gustatzen zaizkit, Angel Bados ere bai, pintoreen artean J. R. Amondarain...

- Nola ikusten duzu Euskal Herrian egiten ari den artea?

- Hainbeste jende dago..., eta oso zaila da deskriptzea. Gainera, Unibertsitatetik arte mundura dagoen pauso hori ez da batere erreza izaten, jende asko geratzen da bidean lana eta arte maila ez direlako konpatibleak, bata edo bestea aukeratu behar izaten da. Artelekuk, adibidez, erreztu egiten du bidea, bestela oso nekeza da aurrera egitea. Bultzatu egiten



zaituzte nolabait eta, horrez aparte, suertea ere behar beharrezkoa da. Nik adibidez suerte haundia izan dut eta nire neska-lagunak ere asko lagundu dit. Hortik aurrera, galeriaren inportantzia ere oso haundia da. Ni oso gustora nago nire galeriarekin, eurekin elkar-tu nintzenetik dena ondo irten zait. Eta beraien lana nirea bezain inportantea da pinturatik bizi ahal izateko.

Guggenheim museoa

- Orain zein proiektu duzu eskuartean?

- Tolosan eta Basaurin egingo ditudan erakuske-


tak gertatzen hasiko naiz. Tolosakoa erakusketa kolektiboa izango da eta Basaurikoa, apirila aldera, indibiduala. ARCOtik Valentzian eta Madrilen erakusketak egiteko proposamenak ere jaso nituen.

- Bestalde, Guggenheim museoak zeresan ugari eman du. Zein da zure iritzia gai honi buruz?

- Hor bi gauza daude; alde batetik, edifikzioa eta, bestetik, museoa bera. Ni edifikzioaren aldekoa naiz, asko gustatzen zait Frank Gehryren lana. Museoa, berriz, Ameriketako sukursal bat besterik ez da eta ridikuloa dela iruditzen zait. Ez dakit, hainbeste milioi hor gastatzea... Baina argi dago horren atzean Bilbo indartzeko ideia dagoela. Hala ere, Moneoren kuboak, Kursaalako proiektu berria gehiago gustatzen zait. Moneo sekulara arkitektoa da, izen haundikoa eta nire ustez proiektu horrek Donostiari imajin bat eman diezaioke. Zertarako egiten dira ba Madrileko Kio dorreak edo Guggenheim bera? Hiriaren imajina saltzeko, besterik ez.

- Muniategiandikoa ez al da izen konplikatuena?

- Denetik entzun dut. Abizena horrela da eta nik betitik horrela sinatu izan dut, nahiz eta herriaren Muniategi esaten didaten. Batzuk esaten didate hori ezin dela horrela mantendu, beste batzuk, aldiz, asko gustatzen zaiela; jende gutxik ikasiko duela izena baina ahaztu inork ez duela egingo. Txarrena da izenaren kontua txiste bat bihurtzen ari dela; hala ere, nik nahiago dut orain arte bezala jarraitzea.



Orrialde honetan Manuk saldutako koadroetako bi.

Zertan gastatzen duzu gurasoek ematen dizuten dirua?



Maite Do Santos

Zinera joaten eta karamelotan gehienbat. Batzutan joku makinetan ere bai... Bai, nahikoa diru edukitzen dut nire gastutarako.



Saioa Blazquez

Golosinetan eta errebigak erosteko normalean. Liburuak ere erosten ditut noizean behin gauetan irakurtzeko. Ez dut diru arazorik izaten eta aurreztu ere egiten dut.



Aitor Aranzabal

Txutxerietan, asko erosten ditut. Batzuk nahiko garestiak dira bai. Zinera ere joaten naiz batzutan. Normalean ez dut dirurik aurrezten.



Aitor Amutxastegi

Txutxerietan, kromoetan batzutan... Diru gehiena astebukaeran gastatzen dut, astebarruan gutxi.



Jon Sasigain

Karameloetan eta... Zinera gutxi joaten naiz eta sobratzen zaidana itxulapikora sartzeko ohitura daukat.



Lidia Diez

Txutxerietan. Batzutan Donostiara joaten naiz eta aurreztutakoa erropak erosi eta opariak egiteko gastatzen dut.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8


Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57



Garraioak

Espainiako Estatuko garraiolarien hamabost eguneko greba pasatu berria dugu. Egun haietan komunikabideetan nahiz kale-etan mota guztietako iritzi eta komentarioak egin eta entzuteko parada izan genuen, gutako askoren bizimoduan (lanean, erosketetan, bidaietan...) eragin handia izan zuen eta.

Ez naiz ausartzen komentatzera, ez naiz batere aditua honetan, zeintzuk izan ziren greba horren arrazoiak, bidezkoak ziren ala ez, ezta gutxiagorik ere, aproposa edo egokia zen ala ez; izan ere, halako egoera baten aurrean greba eskubidea oinarriko eskubidea dela guztientzat eta greba egiten dutenak direla kaltetuenak pentsatzen dut.

Dena den, gertaturikoa ikusita hainbat hausnarketa datozkit burura eta hauek komentatu nahiko nituzke lerro hauek aprobetxatuz:

1.- Garbi gelditu da gaur egungo ekonomiarako garraioak berebiziko garrantzia duela. Hau da, halako greba batek kalte ekonomiko handiak ekar ditzakeela arlo guztietan. Duela gutxi Frantzia gertatutakoa ere esandakoaren lekuko dugu.

2.- Gure bizimodua, ez badirudi ere, gero eta dependientea goa da. Gero eta produkto gehiago "behar beharrezko" ditugu gure bizimodu eroso eta goi-mailakoa aurrera eraman ahal izateko. Ez gara ohartzen, oster, "behar" ditugun horietatik asko eta asko zeharo superfluoa direla eta horien faltan ere bizi gintezkeela.

3.- Zer nolako gizarte neurotikoa bizi garen ere garbi gelditu dela uste dut. Badaezpada-ren izenean lehenengo egunetatik dendetako eta, batez ere, hipermerkatuetako apalak hutsik laga genituen hainbat akopio estra egin eta gero. Pentsatzekoa da benetako larrialdi bat bizi beharko bagenu zer gertatuko litzatekeen. Beldurgarria izan litekeela esatea ez dut uste exajeratua denik.

Miguel Angel ALVAREZ



Bost urtean %1

Euskararen lekua zein dan ikusten saiatu ezker, hortik izaretatik, gaur egungo Euskal Herri euskaldun santu honetan sorpresa bat baino gehixau hartzeko aukeria dao.

Euskal Herri bat ikusiko ginuke, Euskadi bat, Nafarrua bat, Iparralde bat, bost administraziño, lau telebisiño, lau radixoa, egunkari bat, milaka aldizkari eta liburu, sei ikastola, ehundaka euskaltegi, euskararen aldeko talde pila bat, euskaltzaindia bat, epaile euskaldun gutxi, abokatuak bai, idazle asko ta asko, abeslariak majo, aktoriak ugari, makina bat artista, hiru unibertsitate, eskola mordo bat, itzultzaileak, geruau ta jende gehixau euskera ikasten, Euskararen Biziberritzeko Plan Nagusi bat, Aholku Batzorde bat. Hizkuntza Politikarik?

Euskeria dala ta %37k ez aldeko ez kontrako jarrera dauke, %15ak kontrakua, %3k oso aurkakoa, %31k aldekoa eta %14k oso aldekoa, hau da, %45 alde, %18 kontra eta %37 benetan inuxentia.

12.400 elebakar (euskeraz dakixe bakarrik), %0,5; 534.100 elebidun (euskeraz eta erderaz dakixe), %22; 532.900 zeoze berba eitxen dakixenak edo, berba eitxen ez badabe be, "ondo" edo "nahiko ondo" ulertzen edo irakurtzen dabenak, %14,5; eta 1.528.700 erdaldun peto petuak, %63.

Elebidunen kopuruak %1 egin du gora azken bost urteetan Euskal Herrian.

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak hizkuntz politikak lortu dituen emaitzak ikusita, baikor izateko motiboak nabarmendu dituzte.

Gizurteros, patateros, ogitxikis, panaderos!!

Joxe LAZKANO

**Ezkontzetarako
jangela egokia.
Parkin partikularra,
terraza
eta lorategia.**

Lasa Jatetxea,
Bergarako sahiesbidearen
hegoaldeko irteeran.
Telefonoa, 76 10 55
Faxa, 76 20 29



Monumentu nazionala



Lasa
j a t e t x e a

Asteko probaketa-menua

Ahate-gibelezko aspik trufatua

Ogi-xigor [~]holandarra

Legatza txangurroz betea

Orein errea, [~]bi saltsarekin

Sorbeteak, [~]denetarikoak

Ogia eta 3. urteko ardoa (1/2)
edo ur minerala


Kafea eta [~]gozokiak

4.900 pezeta + %7 BEZA

Dena etxean egina

■ Hirukiak Bergaran

Iker, Goizane eta Mikel Larrañaga Burgaña dira azken hiruki bergararrak. Hirurak joan zen otsailaren 3an jaio ziren Bilboko Gurutzetako Ospitalean eta Maria Isabel euren amari zesarea egin behar izan zioten. Lehena heldu zena Iker izen zen (2,340 Kg.ko pisuarekin), ondoren Goizane etorri zen (2,450 Kg.) eta, azkenik, Mikel (2,560 Kg.), hirurak bi minutuko aldearekin. Juan Ramon Larrañaga elgoibartarra eta Maria Isabel Burgaña mutrikuarra 85etik bizi dira Bergaran eta euren lehen seme-alabekin pozez gainezka daude. Hori bai, hirukiek ematen duten lana betetzeko esku faltan...



■ 100 urte

Luzia Amutxastegi Txintxurreta bergararrak **100 urte** beteko ditu domekan. Azkatzu baserrikoa, Luzia osasun aldetik ondo dago eta dagoeneko 14 urte eman ditu Mizpirualden. Domekan bere 100. urtebetetzea bertan ospatuko du. Goizeko 11:45etan **Jubilatu**en abesbatzak lagundutako meza izango da Erresidentziako kaperan, ordubatean **bazkaria** egingo da eta jarraian **dantzaldia**. Luziak isilean ospatu nahi zuen bere eguna baina hain fetxa berezia izanik Mizpirualdekoek argazki bat ateratzeko animatu zuten. Zorionak eta eutsi osasunari!!

■ 26 martirien aldeko ekitaldia Nagasakin

Iazko abenduaren 8tik aurtengo udazkenara arte ekitaldi ugari antolatu dituzte Japonian 26 kristauen martirioaren laugarren mendeurrena ospatzeko. Ekitaldi nagusia otsailaren 5ean Nagasakiko martirien monumentu aurrean emandako meza izan zen; bertan, 5.000 lagunetik gora bildu ziren. Nagasakiko 26 martirien museoko zuzendaria den **Diego Yuukik Miguel Angel Elkoroberezibarri** bidalitako egun horretako argazkian agertzen dira Szoka Kardinala, Aita Santuaren ordezkaria, Mons. Shimamoto Nagasakiko artzapezpikua eta Diego Yuuki S.J..



LARREA
TABERNA
Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

Era guzietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamisetara, sudadera edota nikietan inprimizen ditugu, zuri beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letra, zenbakiak edo dibujak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

AKORT
Publizitatea

San Lorenzo, 7 behe. ☎ 76 50 39



ingurura; bertan, udal langile eta irakasleen laguntzaz, 300 bat zuhaitz landatu zituzten, tartean **pagoak, urkiak edo haritzak**. Aurtengo Zuhaitz eguna Pol-Polen egitea erabaki da, inguru horretan arbolak jartzearren. Ikasleak fin aritu ziren oraingoan...

■ **Zuhaitz eguna**

Zapatuan herriko **ikastetxeetako ikasleek** aurtengo Zuhaitz egunean hartu zuten parte. Eguraldia lagun, iaz baino partaidetza askoz ere haundiagoa izan zen aurtengoan. Guztira, 40 bat ikasle hurbildu ziren Pol-Pol iturriaren



■ **Angiozarko haurrak bisitari**

Angiozarko eskolako haurrak bisitari izan genituen martitzenean. **Mito** irakaslearen laguntzaz, Angiozarko neska-mutikoak Kultur Etxea ikustera etorri ziren eta bitartean **Berrigarako erredakzioan** ere bai. Berrigara nola egiten den jakin nahi izan zuten eta galderez josi ziguten. Hauek bai kazetari zorrotzak...

Zertan dihardute ba?



Iñaki Rubio

bergararrak, Miguel bere anaiarekin batera, lehen saria lortu du TVE-1eko *"Buenas noches"* umorezko programan. Iñaki eta Miguel Madrilen izan dira Bibi Andersenek aurkezten duen programa grabatzen eta, esan bezala, irabazle suertatu dira. Sari modura 500.000 pezeta eskuratu dituzte. Oraindik ere ez da zehaztu aipatutako programaren emisio eguna. Hala ere, honako hau ez da beraien lehendabiziko agerpena izango telebistan; aurretik Antena 3-eko *"Genio y figura"* saioan izan ziren eta han ere izugarritzko arrakasta lortu zuten. Hori dela eta, ordutik, hainbat gala ematen ari dira *"Los mellizos del norte"* izenarekin.

IGARO
 ✓ Kosmetika eta oparigaiak
 ✓ Eder gela
 ✓ Bio Solariuma
 Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

ZUBIETA
elektragintza
 MOTORREN BOBINAKETA
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
 Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atek, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
 Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Klara Laspiur

Agorrosingo udal igerilekuak zabaldu zirenetik bertan ari da lanean Klara Laspiur angiozartarra. Altuna baserrikoa jaiotzez, Klarak bi seme-alaba dauzka eta katekesi klaseak ematen ditu Angiozarren bertan. Abuztuan jubilatuko da.

- Lanerako, uda ala negua?
- Negua trankilagoa...
- Goiza ala arratsaldea?
- Goizez hobe.
- Puntuatu piszinak (1etik 10era).
- Zortzi bat.
- Inguruko piszinarik onena.
- Gonbidatu gaituzte joateko baina ez ditut ezagutzen.
- Piszinetan bainatzen zara?
- Aspaldian ez, lehen bai... Orain lagata daukat.
- Bainurako gorroa bai ala ez?
- Bai.
- Eta udan top-lessa egitea nola ikusten duzu?
- Niri berdin zait.
- Itsasoa ala piszinak?
- Itsasoa nahiago baina ez dut astirik izaten joateko.
- Dutxa ala bainua?
- Dutxa.
- Nola pasatzen dituzu laneko ordu hilak?
- Irakurtzen.



“Piszinetan negua uda baino askoz ere trankilagoa izaten da. Aspaldian ez naiz piszinetan bainatu baina, hala ere, itsasoa nahiago dut. Briskan jokatzera gustatzen zait”

- Zein ordutan jeikitzen zara?
- Lana daukadanean 6:30etan, bestela 8ak aldera.
- Eta oheratu?
- 11etan.
- Meriendarik egiten duzu?
- Fruta piskat.
- Urteko sasoirik onena?
- Udaberria da politena..
- Jantzi bat?
- Trajea.
- Kolore bat?
- Beltza.
- Animalia bat?
- Zaldia.
- Abeslari bat?
- Benito Lertxundi.
- Hobby bat?
- Astebukaeretan lagunekin briskan jokatzera.
- Zenbatean partida bakoitza?
- Bost pezeta.
- Neska-mutilak zintzo izaten dituzu katekesian?
- Ez dira formal egoten ez, lehengunean bakarra etorri zen...
- Zer da gehien errepikatzen diezuna?
- Formal egoteko.
- Bibliako pasarterik gustokoena?
- San Juan Evangelistarena.
- Domekero joaten zara mezatarara?
- Ahal dudanean bai, batzutan lanagatik ezin izaten dut.
- Angiozarko txoko bat?
- Parteitti.
- Jubilatzen zarenean zer egitea gustatuko litzaizuke?
- Oraindik ez dut pentsatu.

Kizkur
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
 Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

ZAPELAITZ
Taberna
 Eguneko menuak
 astelehenetik ostiralera
 San Lorentzo, 25 BERGARA



LAGUN ARO
 ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
 Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54
 ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00
 Larunbatetan: 9.00-13.00

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Burdiñan. 2,6 milioi. ☎ 76 31 79.

Ganbara amueblatua salgai. Berria, prezio interesgarria. ☎ 76 47 27.

Pisua salgai Frontoian. ☎ 76 24 42.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Pisua salgai Donostian, Amaran. ☎ 76 31 79.

Pisua salgai Martokuan. ☎ 76 59 96.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 70 82 90.

Garajea salgai Santa Marinan. ☎ 76 18 95.

Pisu amueblatua salgai Mugertza kalean, 3. zenbakian. ☎ 76 53 79.

Arrasaten karabanendako lokalak alokairuan. ☎ 76 38 26.

Pisua salgai Aranerrekan, Bolun. Altzariekin, 80 m², egoera onean. ☎ 76 47 76 (gauz).

Pisu bat alokairuan hartuko nuke. ☎ (94) 684 00 26.

Etxe amueblatua salgai Deban. ☎ 76 62 27.

Garajeak salgai Torrekuian eta Espoioian. ☎ 76 33 88.

Pisua salgai Zarautzen. ☎ 76 53 69/13 34 67.

DENETARIK

Pevey anplifikadorea salgai. ☎ 76 16 32.

Sony pletina bikoitza salgai. ☎ 76 05 38.

Donostian pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 46 03 98/76 25 59.

Nissan Vanette furgoneta salgai. Hiru urte, egoera onean. ☎ 76 58 94.

Karnabaletako martitzenean urrezko pultsera galdu nuen. ☎ 76 39 33.

Kawasaki Vulcan 500 motorra salgai. Egoera oso onean. ☎ 76 64 70.

Ford Orion (25.000 Km) eta Lada Niva (55.000) ko-txeak salgai. ☎ 76 39 93.

286 ordenagailua (40 mega) salgai. ☎ 76 49 29.

Macintosh ordenagailu berria salgai. ☎ 76 50 59.

Mendiko eskiak (1,80 m) erosiko nituzke. ☎ 76 05 38.

Txirindulari bizikleta salgai. ☎ 76 50 22 (Karlos).

286 ordenagailua salgai, 40 mega. ☎ 76 58 81.

Vespa TX motorra (SS-AJ) salgai. ☎ 76 17 17.

Txakurrendako erremolke behar dut. Prezio onean. ☎ 76 56 05.

Bitrina frigorifikoa salgai. ☎ 76 23 42 (Noemi).

LANA

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 70 40.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 87 (Maribel).

Tabernaria behar da. ☎ 76 23 71.

Elosuko Elurmendi elkartean garbiketarako egiteko lagun bat behar da. ☎ 76 64 91.

Garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ 76 71 21.

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

Haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 06 12.

Klinika auxiliar batek zaharrak edo helduak zainduko lituzke. ☎ 76 64 47.

Tituladun neska bat eskeintzen da edertze areto batean lan egiteko. ☎ 76 13 46.

Neska batek garbiketarako egingo lituzke (orduka). ☎ 76 27 68 (Pili).

Enpresaritzan lizentziatuak, OHOk klaseak ematen ditu. ☎ 76 47 67 (Nere).

Neska batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 40 85 (goizez).

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza

Era guztietako igeltseritza lanak

Loidi Baserria ANGIOZAR
☎ 76 56 86

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK


Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

BERGARA


HILARIO AZKARGORTA
ERAKUSKETA



Argazkiak 'goma bikromatatu' erara. XIX mendeko teknika.

NAHIKARI taberna
Masterreka, 20 - Tl. 76 57 71

Denok batera presoak Euskal Herrira




Margolaria

Juan Jose Altuna




Mendizalea

Amaia Aranzabal



Pilotaria

Aitor Elkoro



Irakaslea

Damaso Gallastegi



Jubilatua

Antxon Irazola



Irakaslea

Kontxi Umerez

*Beste hauek ere
euren atxikimendua
adierazi dute:*

Juan Mari Barrena

Manolo Cainzos

Ines Etxeberria

Mariasun Guridi

Jose Irazabal

German Lazkano


Julio Unamuno

Regino Valle

Goian sinatu dugunok geure egiten dugu ondorengo eskaera:

1. Nahi duten euskal preso guztiak, berehala Euskal Herrira ekarriak izan daitezela.
2. Gizaki orori bezalaxe, dagozkien oinarrizko eskubideen aplikazio integrala esijitzen dugu: gaiso sendaezinak eta kondenaren 3/4 bete dutenak kalera atera.

**Zuk ere, nahi baduzu,
adierazi zure atxikimendua.
Martxoan zehar, larunbat goizetan,
sinadurak biltzen egongo gara plazan.**



1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA ETXAGI	37	14	70	22
2. ERROTAGAIN	35	14	61	25
3. JAUIA OH ZEREZOS	30	14	50	35
4. BAR CANALEJAS	29	14	44	33
5. OGIZUN	16	14	33	50
6. ORTZI	15	14	29	45
7. MONGATXURRA	14	14	37	49
8. AZPEITXI JATETXEA	14	14	45	50
9. ARLOTEAK/OILAGORRA	14	14	57	38
10. BILDURBAREK OPEL/LAM	14	14	49	55
11. PAGOMENDI	13	14	35	52
12. UFALA	8	14	33	44
13. MADURA INDUSTRIAS GOI	5	13	28	35

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK BERGATRANS	30	14	74	41
2. KAYAK OS JARDINEIROS	26	14	57	38
3. UVE BIKOITZA JAM	25	14	40	43
4. ETXAGI	24	13	48	46
5. SOROPOTROAK	21	13	52	26
6. HALTZARI	20	14	44	33
7. LA JUVE	20	14	53	36
8. ERI	19	14	44	39
9. EZINLEIKE	19	14	42	56
10. AGIÑASPI	14	13	3	51
11. AGIRREBEÑA JATETXEA	12	14	35	44
12. INDARGORRI	11	14	19	31
13. AUTOBEREZI	10	14	37	64

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	39	15	65	25
2. FAC	33	15	70	32
3. PJS	32	15	46	31
4. NEKROFIKOS	24	15	42	55
5. NAHIKARI HOOLIGANS	23	15	57	43
6. TXIPIRON	22	14	41	32
7. JAKINA PATXARAN TEAM	19	15	53	46
8. MOSKIS	15	14	47	27
9. IGANDEKOAK	15	14	28	46
10. EH BITERRAK	14	15	36	54
11. CONSTRUCCIONES BERGARA	11	14	32	71
12. MRW	10	15	30	54
13. GANBARA	10	15	34	53

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITU	42	14	104	16
2. ARBE KIROLAK	37	14	87	30
3. OSINTXU	25	14	51	32
4. ETENGABE	25	14	40	33
5. SLO	25	14	54	51
6. MATXAKATEGI	23	14	40	31
7. XURUPAK	21	13	31	44
8. KOMANDO PIPERRAK	16	14	46	68
9. PANORAMIX	13	14	44	48
10. AMILOTX	13	14	27	49
11. POLIDEPORTIVO TABERNA	10	14	33	70
12. PATA NEGRA	9	13	29	72
13. ALDOKA MALDOKA	5	14	31	54
14. PITXAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Fernando Rodriguez
CONSTRUCCIONES BERGARA

ZER MODUZ TXAPELKETA?

Sekula baino txarrago. Oso gaizki gabiltza, zuloan sartuta eta gora egin ezin gabe.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Gauzari onena, guztiak kuadrilakoak garela eta txarrena, berriz, gure artean errez haserretzen garela.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Inoiz ere ez.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Goizez.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Errotagain.

JOKALARIRIK ONENA?

Fernando Salinero.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

7 eta 1, baina ez dakit noren kontra izan zen.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

Sailkapenaren erdialdean bukatzen badugu ondo.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Carl Lewis.

EUSKAL HERRIKOIA?

Indurain.

JATEKO PLATER BAT?

Kiloko txuletoia.

EMAITZAK

AMILOTX-POLIDEPORTIVO TABERNA	2-4
MOSKIS-PATXARAN TEAM	9-2
PATA NEGRA-ARBE KIROLAK	1-12
PAGOMENDI-MONGATXURRA	2-2
OGIZUN-UFALA	2-1
A ZE FLAXA ETXAGI-ARLOTEAK/OILAGORRA	2-2
BAR CANALEJAS-JAUIA OH ZEREZOS	0-3
PJS-CONSTRUCCIONES BERGARA	8-1
MRW-NAHIKARI HOOLIGANS	1-3
TXIPIRON-IGANDEKOAK	3-3
EH BITERRAK-NAHIKARI HOOLIGANS	0-3
ETENGABE-SLO	1-5
MANITOU-KOMANDO PIPERRAK	9-0
OSINTXU-MATXAKATEGI	4-2
NEKROFIKOS-FAC	1-10
ALDOKA MALDOKA-PANORAMIX	3-4
MRW-PATXARAN TEAM	1-5
PJS-GANBARA	4-2
GUADALEST-CONSTRUCCIONES BERGARA	17-3
AGIRREBEÑA-KAYAK OS JARDINEIROS	4-6
ERROTAGAIN-ORTZI	4-1
SOROPOTROAK-HALTZARI	2-2
ARTUSAMAK-INDARGORRI	3-2
AZPEITXI JATETXEA-BILDURBAREK OPEL/LAM	5-5

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: LA JUVE-INDARGORRI • KAYAK OS JARDINEIROS
10:00: AUTOBEREZI-KAYAK OS JARDINEIROS • PAGOMENDI
11:00: PAGOMENDI-ARLOTEAK/OILAGORRA • AUTOBEREZI

Zapatuan kanpoan

10:00: OSINTXU-AMILOTX • KOMANDO PIPERRAK
11:00: KOMANDO PIPERRAK-SLO • NEKROFIKOS
12:00: IGANDEKOAK-NEKROFIKOS • PJS
13:00: PJS-FAC • IGANDEKOAK

Domekan barruan

09:00: A ZE FLAXA ETXAGI-ORTZI • MADURA
10:00: OGIZUN-MADURA INDUSTRIAS GOI • HALTZARI
11:00: ARTUSAMAK-HALTZARI • OGIZUN
16:00: AGIRREBEÑA-EZINLEIKE • UVE BIKOITZA JAM
17:00: AGIÑASPI-UVE BIKOITZA JAM • SOROPOTROAK
18:00: SOROPOTROAK-ETXAGI • ERROTAGAIN
19:00: ERROTAGAIN-UFALA • NAHIKARI HOOLIGANS
20:00: NAHIKARI HOOLIGANS-C. BERGARA • UFALA

Domekan kanpoan

09:00: MOSKIS-TXIPIRON • MATXAKATEGI
10:00: PATA NEGRA-MATXAKATEGI • XURUPAK
11:00: XURUPAK-ARBE KIROLAK • PATA NEGRA
16:00: ALDOKA MALDOKA-POLIDEPORTIVO • ETENGABE
17:00: ETENGABE-PANORAMIX • ALDOKA MALDOKA

ESKOLA KIROLA

11:00: MP-MARIAREN LAGUNDIA
12:00: WALTER-LOS TXISTIS
12:00: INSTITUTUA-MIGUEL ALTUNA

T XINPARTAK

Aste Santuan partidurik ez

Agorrosin futbol zelaiko zuloa ikertzeko 1.600.000 pta.ko aurrekontua egin du Lavin enpresak. Hori ikusirik, Udala Diputazioarekin harremanetan jarri da, ikerketa egiteko makina laga diezaion. Zuloaren erruz Realak Aste Santuan antolatzen duen jubencil mailako futbol torneoaren partidurik ez da jokatuko Bergaran.

Pilota finalerdiak

Igor Gutierrez eta Gorka Martin pelotariak Euskal Ligako finalerdietako partiduak jokatuko dituzte asteburuan. Gutierrezek Gernikan jokatuko du eta Martinek gaur, eguakitzan, gaueko 9:30etatik aurrera Mintegiren kontra Udal Pilotalekuan.

Udalak dirulaguntzak eskatu ditu barruko igerilakuak konpontzeko

Bergarako Udalak dirulaguntza eskatu dio Kiroltako Kontseilu Nagusiari Agorrosingo igerilekuak berritzeko. Udaleko kirol batzordeak egindako proiektuaren arabera, gaur egungo igerilekuak egokitzeko obrek 100 milioiko aurrekontua dute. Estatutik, gehienez, aurrekontuaren %33a jasoko luke Udalak eta erantzuna bi hilabete barru jakingo dute.

Udalak egindako proiektuak 3 ardatz nagusi ditu. Alde batetik, barruko igerilekuetan zaharkituta dagoen egitura konpondu egingo da. Bestetik, aldagela gehiago egiteko asmoa dago, udan kanpoko eta barruko igerilekuak batera zabaltzeko. Gaur egun ezin dira biak batera zabaldu, beste gauza batzuen artean, aldagela faltagatik.

Azkenik, Osakidetzak eskatzen dituen segurtasun neurriak betetzeko konponketak aurrikusten ditu proiektuak. Esate ba-



Beharrezkoa da igerilekuetan berrikuntzak egitea.

terako, neurri horien arabera igerilekuen bazterrak aldatu beharko lirarteke.

Diputazioari dirulaguntza

Udalak Diputazioari ere dirulaguntza eskatu dio proiektua aurrera eramateko. Laguntzak lortu bezain laister hasiko lirarteke lanak eta teknikoek

lanekin udan hastera ikusten dute aproposena. Izan ere, sasoi horretan kanpokoak zabalik baitaude eta igerilekua erabiltzen dutenek eragozpen gutxiago jasan beharko lituzkete.

Obra hauek ez dira azkenengoak izango, Udal agintarien asmoa epe luzera kanpoko igerilekuak estali eta barrukoetan kiroldegi bat egitea baita.



Pala eta frontenis finalak

Ina Irureta eta Roman Etxaidek 35 eta 27 irabazi zieten Jose Javier Acedo eta Iker Alberdiri Udala Kirol Zerbitzuak antolatzen duen pala txapelketan. Hirugarrenak Mikel Etxaniz eta Etor Laskurain izan ziren eta 4. postua Ion Alberdi eta Gaizka Gallastegirentzat izan zen. Frontenis finalean, berriz, Gurutz Beitiak eta Eneko Ugaldek 30 eta 29 irabazi zieten Carmelo Barcala eta Alejo Garciari. Hirugarren postuan Eneko Urizarri eta Gorka Arana sailkatu ziren. Iñaki Martinez eta Hipolito Pozari irabazi ondoren. Sari banaketa Xabier Zabaleta zinegotzia eta Iñaki Ugarteburu kirol teknikariaren eskutik egin zen.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Zarautz

Preferente maila.
Zapatua. 16:45. Ipintza.

◆ Bergara-Oiartzun

Ohorezko kadete maila.
Zapatua. 11:30. Ipintza.

◆ Bergara-Aretxabaleta

2. mailako kadeteak.
Domeka. 10:00. Ipintza.

NESKEN 3. FUTBITO
TXAPELKETA

◆ LTB-Potzu ta Zapaburuak

Zapatua. 11:00. Miguel Altuna.

◆ The Hurricanes-Gu Gu

(Burdinezko Damak)
Zapatua. 16:00. Miguel Altuna.

◆ Blue Star-Power Rantxeras

(Nahikari T.K.)
Zapatua. 16:00. Miguel Altuna.

◆ Nahikari T.K.-Burdinezko D.

(Blue Star)
Zapatua. 17:00. Miguel Altuna.

SASKIBALOA

◆ BKE-Atlético SS

Senior emakumezkoak.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

◆ BKE-Etxagi/Muebles Martin

Senior gizonezkoak.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

ESKUBALOA

◆ Iraundi Begara-Egia (Dono.)

Senior mutilak.
Zapatua. 19:00. Kiroldegia.

◆ Bergara-Bidebieta (Donost.)

Jubenil neskak.
Domeka. 12:15. Kiroldegia.

◆ Bergara-Hernani

Kadete mutilak.
Zapatua. 17:45. Kiroldegia.

PILOTA

◆ Bergara-Arrasate

Deba Arroko Txapelketa.
Eguakitza. 9:30.
Udal Pilotalekua.

Aurretik, Euskal Ligako
banakako finalurrekoo
jokatuko da.

Piti Rodriguez

Futbol talde nagusiko kapitaina

**Francisco Javier Rodri-
go "Piti" BKEko prefe-
rente mailako futbol
taldeko kapitaina da.
Bera da taldeko jokala-
ririk beteranoena, 26
urte bakarrik dituen
arren. Azkenengo emai-
tza onen ondoren bera-
rekin hitz egin dugu
etorkizunari buruz.**

- Azkenengo 3 parti-
duak irabazi ondoren
zela ikusten duzu tal-
dearen etorkizuna?

- Poliki-poliki hobe-
rantz goaz. Asko kostatu
zaigu partidu bat etxean
irabaztea eta hori lortu
ondoren taldea oso ondo
dabil. 3 partidu jarraian
irabazi ditugu eta zapa-
tuan Zarautzen kontra
4.ena irabaz dezakegula
uste dut.

- Zorte oneko bolada
hau zuen merituengatik
edo aurkako ahulta-
sunagatik etorri da?

- Danetik piska bat.
Halere entrenatzaile ber-
ria etorri zenean orain-
dik ez zekien jokalaria-
rik non kokatu, baina entren-
namendu gogorrak egin
ondoren taldeari neurria
hartu diola uste dut. Ho-
rrezaz gain, izerdi asko
bota behar izan dugu ira-
bazteko.

- Zertan hobetu du-
zue?

- Jendeak zulotik irte-
tzeko gogoia zeukan eta
gogor entrenatu eta bo-
rrokatu ondoren emai-
tzak etorri dira. Poliki-
poliki goraka goaz.

- Biharko partidua,
zela ikusten duzu?

- Azkenengo partidue-
tan bezela jokatzen badu-

gu, ez dugu irabazteko
arazorik izango.

- Mailari eusteko ara-
zorik izango duzue?

- Ez, eta uste dut sail-
kapenaren erdialdean bu-
katuko dugula, jokalaria-
rik gogoz baitabilta.

- Zenbat urte dara-
matzazu preferenteko
taldean?

- 8 urte eta ordutik ho-
na asko aldatu da. Lehen
beterano gehiago zegoen
eta hori onerako zen. Jo-
kalari beteranoek badaki-
te zer den maila eta ani-
matzerako orduan asko
igartzen da.

- Orain lan hori zuk
bete beharko duzu.

- Bai, saiatzen naiz.
Halere, hasi nintzenean
jokalaria guztiek urte asko
zeramatzaten taldean.
Gaur egun, bakarrik 2
edo 3 jokalaria beterano
gaude eta beste guztiak
19-20 urte bitartean dau-
de.

- Agorrosinetik
Ipintzara egindako al-
daketa, onerako edo
txarrerako?

- Ipintza txikiagoa da
eta zaletuak gainean ditu-
gunez euren animoak
gertutik hartzen ditugu.
Agorrosin hotzegia da,
zalegoa zelaitik oso urrun
dagoelako. Ipintzan as-
koz hobeto gabilta.



"Saillapenaren erdialdean bukatzea espero dugu".

**"Ipintzan zaletuen
animoak gertuago
sentitzen ditugu"**



Argazkia: Pedro Jose Eguren

Trenaren azken bidaiia, 1971

Mekolalde eta Zumarraga bitarteko trenbidea itxi zutenetik 26 urte betetzen dira gaur, otsailak 28. Egun horretan, argazkian agertzen den lagun taldea kotzez Zumarragara joan zen eta Zumarragatik Bergararaino azken trenaren bidaiaz disfrutatu zuten. Txanpana ere banatu omen zuten egun hartan trenean... Bergara eta Zumarraga arteko trenbidea 1889ko abuztuaren azkenetan jarri zen martxan, Durango eta Bergara bitartekoa 1888ko uztailaren 1ean eta Bilbo eta Donostia arteko linea uztailako egun berean baina 1882an. Garai batean hiru trenbide pasatzen ziren Bergarako terrenuetatik, Urolako trena ere Aizpurutxotik pasatzen baitzen.

Horra hor 1971eko otsaileko egun euritsu hartan trena agurtzera joan zirenak, ezkerretik esku-mara:

Zutik: Jokin Mujika, Iosu Mujika, Paul Mujika, Angel Mujika, Marcial Moreno, Carlos Gonzalez tren geltokiko burua, Jose Irigoien, ezezaguna mutikoarekin, Jose Mari Larrea, Carlos Gonzalezen alabak (aurrerago dauden neskak), Julian Salsamendi, Santos Alustiza, Jose Mari Urrutia, ezezagunak eta Valentin Eguren.

Makurtuta: Jose Mari Berasategi, Iñaki Berasategi, Jose Mari Arizmendi, Gotzon Zabala, Eukeni Zabala, Pedro Jose Eguren eta Jose Luis Berasategi.

Argazkian agertzen den makinista Jesus Ariznabarreta durangarra da.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

SEBASTIAN IMAZ



Milagros eta Sebastian. 26 urte lanean. Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67

JOSE LUIS LETURIA



Mari Angeles eta Jose Luis. 34 urte lanean. Artekale, 5 ☎ 76 11 30

LUIS MARI REZOLA



Luis Mari eta Margari. 11 urte lanean. Matxiategi, 7 ☎ 76 17 63

IGARZA



Alicia eta Jabier. 23 urte lanean. Irizar, 3 ☎ 76 14 12

Bedelkarreko harategiak



Herritarren zerbitzura!!

JOSE MANUEL ZURUTUZA



Jose Manuel. 10 urte Arrasaten eta 20 Bergaran. Urteaga, 9 ☎ 76 08 68

Amaia eta Ion Mirena



San Pedro, 24 ☎ 76 12 23

Iosu eta Karmontxu



Zubiaurre, 23 ☎ 76 28 76

LETURIA HARATEGIAK

LAZPIUR



Jabier Lazpiur. Harategiak 82 urte ditu. Komenio, 2 ☎ 76 10 72

URCELAY HARATEGIA



Pello eta Arantxa. 4 urte lanean. Ibargarai, 7 ☎ 76 00 45

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak:
San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga, 10 behea.
Telefona: 76 03 30. Faxe: 76 02 91